



**Kurtzio kultur etxearen bosgarren urteurrena ospatzeko, 11 orduz egongo dira ekitaldiak** ▶11

**Iraitz Salegi kazetaria maiatzean epaituko dute Gazte Danbadaren berri ematen ari zela «terrorismoa goratu» izana leporatuta.** ▶10



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**8. zenbakia**

2015eko  
**martxoaren 12tik**  
**martxoaren 18ra arte**

## Espioiak, ertzainak, eta gerra

**Nazioarteko Eremua izan** zen Areetako moilaren ingurua, 1936an. Bertan sortu zen Ertzaintza ▶22



## «Erabakitzeko guneak eraiki behar dira»

**Nicola Foroni italiarrak** eraldatzeko hainbat prozesuetan lan egin du. Joan den martxoaren 3an parte hartzearen inguruan jardun zuen Algortan.

Foroni italiarra da sortzez, 21 urte-gaz Nikaraguara joan zen kooperante-lanak egiteko. Ondoren, El Salvadorera jo zuen, eta bertan Fastras fundazioagaz hasi zen la-

nean. Gerra ostean, CIAZO fundazioaren zuzendari izendatu zuten. Gaur egun Euskal Herrian bizi da eta eraldatzeko prozesuen bideratzaile-lanetan dihardu. ▶16

## Korrikaren hasiera gero eta gertuago



**Getxon iaz sortutako** hondakinen %21,55 birziklatu ziren. Udalak, ordea, %50era heltzea du helburu. ▶2

**Etxe hutsak alokairuan** jartzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri da Leioako udala. ▶6

**Barrikako HAPO behin-behinean** onartu dute. Alegazioak aurkezteko epea zabalduko dute laster. ▶9

**Lutxanako tunela seguruagoa** izateko hainbat moldaketa egin du Udalak, emakume elkarteekin laguntzaz. ▶10




### BIRZIKLAPENAREN BILAKAERA 2013-2014




■ KILO KOPURUA BIZTANLEKO 2013AN  
■ KILO KOPURUA BIZTANLEKO 2014AN


#### Papera




#### Hondakin elektriko eta elektronikoak




#### Beira




#### Obra hondakinak



#### Ontziak



#### Tamaina handikoak



DATUAK: GETXOKO UDALA

# Hondakinen birziklatze-tasa helburutik urrun dago oraindino

**Eusko Jaurlaritzak 2010erako** hondakin guztien %35 selektiboki batzea agindu zuen. Getxon iaz sortutako hondakin guztietatik %21,55 birziklatu ziren. Hala ere, hondakinen bilketarako zerbitzu berriagaz, hurrengo zortzi urteetan birziklatze-tasa %50era iristea du helburu Udalak. Oraindik zerbitzu horiek ez dira bermatu.

Getxon iaz sortutako hondakin guztietatik %21,55 birziklatu ziren. Guztira, 28.500 tona zabor batu ziren udalerrian, eta horietatik 6.100 tona pasatxo birziklatu ziren. Beste %78,45a, hau da, 22.400 tona inguru, bereizi bako zaborra zen, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren esku utzi zuten modu egokian tratatzeko. Datuotan ez dira kontuan hartu hondartzetan batutako hondakinak. Getxoztar bakoitzak 357 kilogramo hondakin sortu zituen iaz, aurreko urteetako kopuru beretsua. Aurreko urteagaz alderatuta, gainera,

ez da ia aldaketarik izan datuetan, ez hondakinen bilketari dagokionez, ezta birziklatzeko gaikako material-bilketari dagokionez ere. Keltse Eiguren In-gurumen zinegotziak azaldu duenez, «hurrengo zortzi urteetan hondakinen birziklatze-tasa %50era iristea» dute helburu.

Udalak argitaratutako datuen arabera, birziklatzekoak diren hondakinen gaikako bilketak, aurreko urtekoagaz alderatuta, igoera txikia izan zuen iaz: %0,32koa. Birziklatzeko gai nagusiei dagokionez, hau da, papera, beira eta ontziak, lehenengo biak jaitsi

ziren, %2,34 eta %1,75, hurrenez hurren. Ontzien kopurua, berriz, %0,25 igo zen.

#### Zabor bilketarako edukiontziak

Birziklatzeko hondakinen bilketarako hainbat edukiontzi daude Getxon: ontziak biltzeko 244 edukiontzi (edukiontzi horia), paperak batzeko 214 (edukiontzi urdina) eta beirak jasotzeko 198 (edukiontzi berdea). Pilak batzeko 107 edukiontzi banatu dituzte saltokietan eta ikastetxeetan, eta beste 19 gehiago ere badaude kaleetan banatuta. Halaber, arropa, jostailu eta

elektrizitate-tresna txikiak batzeko 23 edukiontzi daude. Gainera, aste aka-buetan udalerriko lau lekutan Garbigune Mugikorra jartzen dute.

#### Birziklatzeko kanpaina, martxan

Edukiontziak eta Garbigune Mugikorra zuzen erabiltzeko sentsibilizazio-kanpaina abiatu du Getxoko Udalak, Ecoembes erakundeagaz batera. Horretarako, 30.000 liburuxka banatu dituzte udalerriko etxe guztietan. Liburuxka horietan, kalean dauden edukiontzietan zer-zelako hondakinak bota behar diren jakinaraziko dute. ◀

## Deskontuak eta opariak emateko txartel turistikoak

Bisitarietara eta turistetara zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresen artean GETXOPASS txartel turistikoa sustatzeko kanpaina hasi du Udalak. Interesa duten enpresek martxoaren 15era arte izango dute izena emateko epea. Txartel turistikoa doakoa da, eta Getxon kontsumitzen duten bisitariak eta turistak kontsumitzaileak eta opariak saritzen ditu. «Bisitak eta tokiko baliabide eta zerbitzu turistikoak sus-

tatzea da» horren helburua, Ignacio Uriarte Turismo zinegotziaren arabera. Ekimenean parte hartzen duten enpresek kontsumitzaileak eskaintzen dizkiete txartela erakusten dutenei. Udaleko Turismo Unitateak, bere aldetik, «ekimen horren gastuak ordaintzeaz gain», oparia trukatu dio gutxienez 3 zigilu dituen txartel bakoitzaren jabeari, «kontsumitzailearen zerbitzuak baieztatu ondoren». ◀

## Arrue: «Belaunaldi berriei aukera emateko ordua da»

Marisa Arruek Getxoko PP utzi du. Joan den astean prentsaurreko batean jakinarazi zuenez, popularren hautagai eta buru izateari uko egin dio. Arruek 24 urtez jardun du Getxoko zinegotzi, eta bertoko PPren buru izan da 20 urteotan. Azaldu duenez, atzera begiratzen duenean, «esan dezaket ohorea izan dela Udaletik lan egitea, hainbeste maite dudan herria hobetzeko». ◀



Marisa Arruek 24 urte eman ditu Udalean.

Getxo

# Sukaldariak sortzen

**Fadurako Ostalaritza Eskolan** sartzeko Getxoko 18 urtetik gorakoek dute lehentasuna.

**A**lgortako Fadurako Ostalaritza Eskolak 250 neska-mutil trebatu ditu 2010ean zabaldu zenetik hona. Ordutik, 20 bat ikastaro eman dituzte bertan, Lanbide sektorearen beharren arabera diseinatutakoak, esaterako, sukaldari eta tabernari izateko. Ikastaroetan, heziketa teorikoa (220 eta 440 ordu artean, mailaren arabera) eta enpresako praktikak (80 eta 160 orduren artean) eskaintzen dituzte. Arduradunek azaldu dutenez, praktikak ikaslearen ezaugarrietara moldatzen ahalegintzen dira. Praktikek gutxienez urtebeteko eta gehienez hiru urteko iraupe-



Ikasleen laneratze-maila %40koa da. GETXOKO UDALA

na dute. Langilearen jarraipena edo kontrola ezartzen dute praktiketan, haren garapena egiaztatuzeko, «pertsonek zein profesionala, ondoren benetako lan-merkatuan sartzeko prest dauden edo ez baloratzeko», azaldu dute arduradunek. Praktiken ostean, «sek-

toreko Bizkaiko enpresetan ikasleen laneratze maila %40koa da», jakinarazi dute. Eskolako jatetxean eta kafetegian 10 pertsonak egiten dute lan, eta jatetxeak menu ezberdinetako karta zabalak eskaintzen ditu egunero. ◀

Info+: [www.restaurantefadura.com](http://www.restaurantefadura.com)

## Algortan enpresa mintegi bat sortzeko lehenengo urratsa

**E**npresa proiektuetarako Udalaren espazioak erabiltzeagatik, behin-behinean tasa bat ezartzea onartu du Udalbatzak, EAJ eta PPren aldeko botoakaz. Udalak jakinarazi duenez, Algortan enpresa-mintegi bat sortzen lagundu gura dute, Aingeruaren etorbidean gaur egun dagoen Herritarren Arretarako Bulegoaren ondoko etxean. Enpresari lotutako proiektuak dituzten 35 bat lagunek bultzatu ahal izango dituzte euren egitasmoak udalerrian bertan, esperientzien berri elkarri emanez eta espazioak partekatuz. Proposatutako tasa 6 eurokoa da metro bakoitzeko, eta kontzesioak denboran mugatuak izango dira, urtebetekoak edo bi urtekoak. EH Bildu eta PSE-EE abstenitu egin ziren. Lehenengoek ekintza gehiago egin beharra dagoela uste dute; bigarrenek, berriz, udal espazio horrek behar sozialei erantzun behar diela uste dute. ◀



## Getxon sinesten dugu

Bat eginda gure hiriaren garapenaren alde.



Getxo

# Kulturan eragina izan duten getxoztarrak sarituko dituzte

**Urtero legez, Getxoko** Udalak kultura-munduan egindako lana eta konpromisoa sarituko ditu Aixe Getxo! sariakaz. Garaikurrak zenbait ataletan banatuko dituzte.



Laura Mintegik jasoko du Literatura saria.

**M**artxoaren 12an, eguenagaz, Getxoko Udalak Aixe Getxo! sariak banatuko ditu Algortako Fadura kiroldegiko areto nagusian, 20:00etan, kultura-munduan egindako lana, konpromisoa eta zabalkunde ahalegina azpimarratzeko. Sariaketa udalerriko kulturaren urteko topagune bihurtu dela azaldu dute antolatzaileek.

Koldo Serra (Getxo, 1975) zinemaren, bideo musikalen eta publizitate-iragarkien zuzendariak «Ikus-entzunezko arteak» saria jasoko du. Tesa Gonzalez ume eta gazteentzako liburuen ilustratzaileari, berriz, «Arte plastikoak» saria emango diote. Bere ibilbideagatik, «Arte Eszenikoak» ataleko saridun izendatu dute zendutako Koldo Losada aktorea (Getxo, 1960 – Bilbo, 2014). Musika atalean, *Adele* 21 lanagatik Grammy saria irabazi zuen Beatriz Artola soinu-ingeniariari eta Sara Iñiguez «Rubia» izeneko *Sunshine* pop taldearen buruari emango diote saria, *ex aequo*.

Laura Mintegi (Lizarran, 1955) idazle eta EHUko irakasleak, bere aldetik, Literatura saria jasoko du. ITEMdesignworks nazioarteko aholkularitza-entresak diseinua atalaren aitortza jasoko du; eta Cesar Aitor Azkarate (Bilbao, 1966) arkitekto-doktoreak, «Arkitektura eta eremu publikoa» sailaren saria. Juan Zabala Faturako baserrita-

rrak gastronomiaren saria jasoko du, urte askoan fruta eta barazki «ezin ho-beak» ekoizteagatik. Getxoko Etorri-nak taldeak ere bere saria jasoko du: «Kultura hezkuntzan eta balioetan», bizikidetzaren balioen sustapenean erakutsitako jardunagatik. Jose Maria Mato (Madril, 1949) kimikariak 10 urte baino gehiago daroatza Getxon, eta «Zientzia eta berrikuntza kultura» sail-leko saria jasoko du; gaur egun, Mato Bio zientzietako Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa-CIC-bioGUNEren zuzendari nagusia da. «Kultura ondarea, hautemangarri eta hautemangaitza»-ren saria Areetako Santa Ana baselizak jasoko du, bere 150. urteurrenean. Jose Luis Butron eskultoreak, Karmelo Errekato kazetariak eta Nadal liburu-dendak ere saria jasoko dute urtetako ibilbide profesional eta artistikoagatik.

Azkenik, Eneko Lopetegi CIMA Nafarroako Unibertsitateko Medikuntza Aplikaturako Ikerketa Zentroaren ikertzaileak «Aixegaztea» saria jasoko du. Lopetegik, gainera, «Jose Maria Ferrero Corral» saria irabazi zuen, «Mugimendu librean dauden karraskarien aktibitate neuronalaren erregistro kronikoa egiteko inplante baten diseinua eta implementazioa» lanagatik; Alzheimerren inguruan egiten dabilen doktoretzaren baitan egindako lana da. ◀

## Danele Sarriugarte egongo da Irakurzaleen Txokoa

**D**anele Sarriugartek martxoan bisitatuko du Egizu taldeak antolatzaren duen Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa, *Erraiak* liburuaren inguruan berba egiteko. Hitzordua hilaren 18an jarri dute, eguaztenagaz, 19:30ean Algortako Villamonte kultur etxean.

*Erraiak* eleberririk bikotearen haus-tura mingarria du abiapuntu; «emakumezko baten kontakizuna bakarrik iritsiko zaio, ordea, irakurleari, obsesio

bihurtuta. Horregatik, ohikoa ez den intentsitateagaz barneratu da Sarriugarte pertsonaiaren barrunbeetan, haren zokorik ezkutuenak, erraiak, agerian utziz. Barne bakarrik batean murgilduta, protagonistak ordura arteko bere bikote-harremanak xehatu-ko ditu, inoiz utzi ez duten mamuak aurrez aurre jarritz». Azaltzen dutenez, kontzientziak astintzeko lehergailu legez irakur daiteke *Erraiak*. ◀



Martxoaren 18an egongo da Sarriugarte Algortan. DANELE SARRIUGARTE

## Korrika Kulturala badator motorrak berotzen hasteko

**K**orrika hastear dago. Hala ere, eus-kaltzaleak hilaren 19an Urepeletik Bilborako bidean korrikan hasi baino lehen, euskaraz gozatzeko egundoko aukera egongo da Getxon. Izan ere, Korrika Kulturala ekitaldiz josita dator Korrikaren 19. edizioaren bezperan. Daborduko Euskal Herriko bazter guztiak Korrikaz blaitzen hasi dira, eta euskararen uriola hori hilaren 13an helduko da Algortara. Egun horretan bertso-afaria egingo dute Kasinon, 21:00etan. Itzubaltzeta / Romokoek, berriz, martxoaren 18an helduko diote Korrika Kulturalari: bertso-poteoa egingo dute 19:30etik aurrera Gure Etxea tabernatik abiatuta. Hilaren 22an, domekan, umeentzako kale-antzerkia egongo da Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazan, 12:00etan; handik egun bira ere umeentzako kale-antzerkia, Algortako Telletxe plazan, 18:00etan. Azkenik, martxoaren 24an, Gibelurdinek musika-taldeak Algortako kaleak animatuko ditu San Nikolas enparantzatik abiatuta, 19:00etatik aurrera. Egun horretan

### Egitaraua

#### Martxoak 13, barikua

21:00  
Bertso-afaria, Algortako Kasinon.

#### Martxoak 18, eguaztena

19:30  
Bertso-poteoa, Romoko Gure Etxea tabernatik abiatuta.

#### Martxoak 22, domeka

12:00  
Salam kale-antzerkia umeentzat, Romoko Santa Eugenia plazan.

#### Martxoak 24, martitzena

18:00  
Salam kale-antzerkia umeentzat, Algortako Telletxe plazan.

#### Martxoak 24, martitzena

19:00  
Gibelurdinek taldearen kale-animazioa, San Nikolas enparantzatik abiatuta.

bertan igaroko da Korrika udalerritik, jai-giroan getxoztar guztiak euskahaldun bihurtzeko. ◀

Info+: [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus)



Erandio

# Lutxanako tunela, seguruagoa

**Lutxanako lurpeko pasabidean** oinezkoen segurtasuna hobetzeko abiatutako lanek kontuan izan dituzte Erandioko Udal Berdintasuna eta Emakumeen Arloak zein zenbait kolektibok egindako ekarpenak.



Hainbat elkarte eta kolektiboren ideiak eta ekarpenak jaso dituzte Lutxanako tunela hobetzeko.

**I**tsasadarreko errepidearen azpiko lurpeko pasabidean zein inguruetan makina bat aldaketa egiten dabil asteotan Erandioko Udala. Erakundeak zabaldu duenez, ikusgaitasuna eta argiztapena hobetu dituzte, besteak beste, hormak kolore argiagoz margotuz eta sarbideetako izkinetan ispiluak jarritz. Horrez gainera, kontrola areagotuko du Udalak, sarbideetako farol bietan tunelaren barruko aldea eta inguruak zelatatze bideo-kamera berri bana ipinita.

Joseba Goikouriak gidatzen duen Udalak hirigintza-irizpideei kasu egiteagaz batera, kontuan hartu ditu genero ikuspegitik Erandioko elkarteek eta kolektiboek zein Berdintasun eta Emakumeen Arloak egindako ekarpenak. Adibidez, egungo espaloien diseinua dela-eta, tunelera sartzeko bidea laburragoa da, baina 90 graduko angelua ere egiten du, eta horrenbestez, oinezkoak ez du astirik pasabidearen barruan zer edo nor dagoen ikusteko. Horregatik, tunelaren bi aldeetan diseinu berria proposatu da: sartzera doazen pertsonak bira zabalagoa eman eta lur azpiko pasagunea hobeto ikus dezaten. Ikusgaitasuna hobetzeko, eta, aldi berean, energia au-

rrezteko, kanpoko farol batzuk lekuz aldatu dituzte eta orain arte erabili diren presio handiko sodio-baporeko lanparak ordezkatzan hasi dira, halogenuro metalikoa erabiltzen duten lanpara erregulagarriak sartzeko. Sistema osatzeko, argia eta mugimendua detektatzeko lau gailu jarri dituzte: ingurune argitasunaren arabera eta pasabidetik pertsonak igarotzen diren heinean, lanparek emango duten argia erregulatuko dute. Horrela, bertako argi-ilunak eta segurtasun-ezaren sententzia ekidin gura dituzte.

## Horma

Argiaz eta espaloiaz gainera, arkitektura-oztopo txiki bat ere moldatuko du Udalak. Izan ere, aitortu dutenez, ondoko auto-kontzesionarioko hormigoizko murrak ezkutatu egiten du ipar-mendebaldetik tunelera doan bidea. Hori dela eta, egungoa kendu eta horma berria jarriko dute, eta hainbat zatitan burdin hesia ipiniko dute alde batetik bestera espaloia ikusi ahal izateko. Azkenik, tunela sortu zenetik grisak izan diren hormak zuritu egin dituzte, argitasun handiagoa izateko. Leku batzuetan, dekorazioa ere gaineratu dute. ◀

## Toy-O ikuskizuna, Alzagako ikasle-bidaia ordaintze aldera

**C**irque Pieg elkarte artistikoak diziplina anitzeko *Toy-o* ikuskizuna plazaratuko du zapatuan, 18:00etan zein 21:00etan, Alzagako ikastolan. Sarrerak hiru euroan eskura daitezke, eta batuko den dirua DBHko 4. mailako ikasleen ikas-bidaiarako izango da. Ikuskizunak eten bat egitea proposatzen du gure heldutasunean, eguneroko ardurek sortutako estresaren

pean bizi dugun helduen bizitzan, alegia. Gure haurtzarora gogora ekarrita, *Toy-o*-k gazte baten istorioa kontatuko digu: hil den jostailu-egile baten semearena. Bizidun bihurtuko diren jostailuz beteriko kutxa aurkituko du, eta jostailu bakoitzagaz trebetasun handiko akrobaziak egingo ditu gazteak, aitzak utzitako mezua topatu arte. ◀

Info+: [ticketea.com/toy-o-by-idartist/](http://ticketea.com/toy-o-by-idartist/)



*Itsasertzetik*

GUILLERMO MALAINA MARTINEZ  
Irakaslea

## Bazkal osteko euskara

**D**uela 20 urte jazo zen. Erromoko euskaltegian nintzela, ezustean itaundu zidan irakasleak: «Guiller, zergatik hasi zara euskara ikasten?» Gorriturik eta totelka, bere jakingura asebate nuen bi hitzez: «Etxeko minagatik». Barneko huts hura sentitua nuen zenbait hil lehenago Lanzarote irla izugarrian, non etxeko mina arintzearen euskara ikasteari ekin nion, euskal hitzak zein aditzak penarako antidotoak bailiran. Euskara bazkal osteko postrea zen, La Voz de Lanzarote egunkarian kazetari nuen lanari lotu aurretik. Horrela, Lanzaroten, urruntasunean, itsasoari so, euskararekiko motibazioz zipriztindu nintzen. Gaurdaino. ◀

**I**

*Iñaki*  
*Bitxitegia*

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

*Algorta*

**aldai**

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

**GAVRKO**

GIZONENTZAKO  
MODA

**Zabala 9**  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

**REBEL**

**TATTOO**

Basagoiti 73, 48991 ALGORTA  
Tf. 946 12 07 52  
[facebook/RebelTattooAlgorta](https://facebook.com/RebelTattooAlgorta)



## Leioa

# Etxe hutsen alokairua sustatu gura du Udalak

**Azterketa oinarritzat hartuta**, udalerriko gazteek etxebizitza duina «arrazoizko» alokairuan eskuratu ahal izatea litzateke eman beharreko pausoen helburua.

## 852 etxebizitza huts Leioan

### PREST EGONGO ZINATEKE ETXEBIZITZA ALOKAIUAN JARTZEN PROGRAMA PUBLIKOEN BIDEZ?

**%3**  
Guztiz baztertzen dut

**%12**  
Aukera hori noizbait baloratu dut

**%85**  
Inoiz ez zait holakorik bururatu

### ETXEBIZITZA HUTSEN EGOERA

**%9**  
Erabateko berriztatzea behar du

**%45**  
Konponketa lanen bat behar du

**%46**  
Egoera onean dago

Leioako Udalak agindutako azterketaren hainbat emaitza.

Udalak agindutako azterketaren emaitzek aditzera eman dutenez, 852 etxebizitza huts daude Leioan; eta horietako askotan ez da inortxo ere errolatuta egon azken urtean, bigarren etxebizitzak eta aste akabukoak kontuan hartzen ez badira behintzat. Datu horiekaz, Eusko Jaur-laritzaren Etxebizitza Sailburuordetza-gaz harremanetan ipini dira agintari leioztarrak, etxeak alokatzeko egitasmo publikoak herrian ere indarrean jartzeko. Udal arduradunek aurreratu dutenez, harreman horien emaitza da laster erakunde biek hitzarmena izenpetuko dutela, Leioak ere Bizigune eta ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programakaz bat egiteko.

Modu horretan, programa horietako batean (edo bietan) izena eman duten leioztarrak etxebizitzaren jabeakaz harremanetan jarri gura dituzte. Hutsik dauden pisuak merkatura ateratzeko, bere kabuz ekimenean bat aurrera ateratzea ez du baztertzen Leioako Udalak, «beti ere jabeen nahiak errespetatzen badira». Etxebizitza hutsen egoeraren gainean herri-erakundeak

eskatutako azterketa horrek finkatuko ditu aurrerantzean egin beharrekoak.

Leioako Udalak diru-partida bat bideratu zuen 2014ko aurrekontuetatik, herriko etxebizitza hutsen egoera zein den eta etxe horien alokairu-merkatuan sartzeko dauden aukerak aztertzeko. Udalak aitortu duenez, ikerketaren helburu zehatza ez zen udalerrian zenbat etxe huts dauden jakitea, baizik eta horien guztien jabeek alokairuan jartzeko asmorik daukaten jakitea. Emaitzak eskuan, galdetutako herritar gehienei inoiz ere ez zaie bururatu euren etxe hutsa programa publiko baten bitartez alokairuan jartzetik. Hala ere, pisu horien erdiak baino apurtxo bat gutxiago alokatzeko egoeran egongo liriteke.

Gaur egun, babeseko alokairuko etxebizitza eskatzen dabilzan 582 lagun daude Leioan errolatuta. Eta horietatik laurdena 30 urtetik beherakoak dira.

Bertokoez Leioan bizitzen jarraitzea gura dute udal arduradunek, etxebizitza duina «arrazoizko» alokairuan eskainiz, aipatu dutenez. ◀

## Zabor-edukiontzi marroiak daborduko erosi ditu Udalak

Materia organikoaren gaikako bilketa egiteko marroi koloreko bosgarren edukiontzia Leioara ere helduko dela iragarri du Mari Carmen Urbietak alkateak. «Ez dakit bat, bi edo hiru hilabete barru izango den, baina daborduko erositako daude», garbiketa eta zaramaren bilketarako ibilgailu berriak aurkezteko prentsurrekoan aurreratu zuenez. Erositako edukiontzi marroiak enpresak berak ekartzea baino ez da falta, Urbietaren arabera. Ostean etorriko dira herritarrei zuzendutako informazio eta kontzientziaziorako kanpainak. Izan ere, bosgarren edukiontzia egitasmoan parte-hartzea borondate kontua da. Leioaztar

bakoitzak erabaki beharko du sistema berri horretan parte hartuko duen eta materia organikoak bertara eroango dituen. Hain zuzen ere, ekimenean parte hartzen duen herritar bakoitzak txipa daukan txartela edukiko du, edukiontzia zabaldu eta bertara zaborra bota ahal izateko. «Hasiera batean, kanpaina auzo gutxi batzuetan abiatzea pentsatuta geneukan, baina beste udalerriri batzuetan izandako emaitza onak ikusita, Leioa osora zabalduko dugu», esan zuen Urbietak. Bestalde, herriko frutategietan atez ate batuko dituzten hondakinak ere konpostaje-gunera eroango dituzte, bosgarren edukiontzia aprobetxatuz. ◀

## Enpresa-mintegirako deialdi berria egin du Behargintzak

Leioako Behargintzak Udaleko enpresa-mintegian sartzeko aukera emango die espazioa behar duten proiektu berriei. Enpresa-mintegia Ibaiondo plazako 1. zenbakian dago, 107. bulegoan. Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 17ra arte egongo da zabalik. Proiektuek daukaten ikuspegi herritzailearen arabera balioetsiko dira, baina, dena den, beste faktore batzuk ere kontuan izango dira, Behargintzakoek azaldu dutenez.

Mintegiak 180 metro koadroko azalera dauka, eta gune hauek: udal bulego tekniko, bost modulu eta erabilera anitzeko gela. Moduluetakoa bat partekatzeko eskaintzen da, eta, gehienez,



4 lanpostutarako lekua dauka. Mintegiko egonaldia bi urtekoa izango da, erosteko aukerarik ematen ez duen alokairu-araubidean, eta beste urtebetez luza daiteke prestakuntza-beharreratik edo negozioaren arrakastarako aurreikusten bada. ◀

## Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.  
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.  
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.  
Escolaz kanpoko aktibitate ugari.  
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez: Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)  
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net





**LUBERRI Basolanak S.L.**  
LOREZAINZA

SGS Nº ES109014  
SGS Nº ES109015  
Tudcan

- Soropila Ezartzea: lurzorua prestatzeko lanak, drenatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsario organitze lanak eta erate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea: Moztea, ureztatzea, organitzea, egurastea, aratzea eta desinokatzeta, berrikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak: Hazteko, mantentze, berriketako, zikloa apaingaririk inauslea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Aspe ibaiertza 28A behoko solairua B12 lokala (ERANDIO) Mug: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41  
luberi@euskalnet.net - www.luberi.biz

## Gorliz



ArgIHizkiak 2014

## Sertutxenan dago ikusgai ArgIHizkiak

**A**rgIHizkiak erakusketa, daborduko Gorlizko Sertutxena kultur etxean (Eloisa Artaza, 1) dago ikusgai. Uribe Kostako 10 argazkilariren argazki bannatan oinarritutako literatura-lehiaketaren euskarazko testu labur onenak osatutako erakusketa martxoaren 22ra arte egongo da Gorlizen. Bistak, astegunetan, goizez 10:00etatik 13:30era eta arrastiz 16:30etik 21:30era egin daitezke. Zapatuetan ere zabalik egongo da aretoa, 10:00etatik 13:30era goizez eta 16:30etik 19:00etara arras-

tiz. Domeketan, berriz, bakarrik goizez bisitatu ahalko da erakusketa, 10:00etatik 14:00etara.

ArgIHizkiak egitasmoko obra guztiak hainbat argazkitan oinarritutako testu laburrak dira. Lehiaketa horregaz, jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatu gura izan dute antolatzaileek; argazkilaria uribekostarraren lana ezagutzera emateagaz batera. Gorlizko erakustaldia izango da ArgIHizkiak erakusketaz gozatzen azkeneko aukera. Izan ere, laster abiatuko da eta 2015eko lehiaketa. ◀

## Emozioak kudeatzen ikasteko tailerra Sertutxenan

**U**ribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak emozioen kudeaketarako ikastaroa antolatu du. Saioak Gorlizko Sertutxena kultur etxean izango dira (Eloisa Artaza, 1). Zainduz Programaren baitan kokatu dute ikastaroa, eta saioak martxoaren 17an, 24an 31n eta apirilaren 7an izango dira, 17:30etik 19:00etara. Tailerra doakoa izango da; hala ere, arduradunek jakinarazi dutenez, alde aurretik eman beharko da izena. Parte hartzen dutenek emozio negatiboak zelan kontrolatu behar diren ikasiko dute, eta zer egin behar den emozio txar horiek gure bizitza kontrola ez dezaten. ◀

Info+: [www.gorliz.net](http://www.gorliz.net)  
Izena emateko: 946 763 999

## Sagardotegira joango dira Gorlizko eta Plentziako auzotarrak

**T**xotx egiteko denboraldia da, sagardoa dastatzeko eta ondo jateko sasoa. Horren jakitun, sagardotegira irteera egingo dute martxoaren 14an, zapatua, Gorlizko eta Plentziako auzokideek. Hala, izena eman duten lagunek Astigarragako Artola sagardotegia bisitatuko dute tripak eta eztarriak asetzeko. Ondoren, Hernanira joango dira, gaueko 12:00ak arte. Irteeraren prezioa 35 euroan ezarri dute. Antolatzaileek martxoaren 13ra arte, bariakua, luzatu dute izena emateko epea, Gorlizko kultur etxean edo Plentziako Goñi Portalean. Hitzordua 11:00etan jarri dute Gorlizen, Itxasbide 30ean; 11:15ean, berriz, Plentzian lotuko dira, Eroski parean. ◀




### GURE IKASLEEN AHOTAN



## «Unibertsitate honetan irakaskuntza aplikatua jasotzen dugu»

**Iker Telletxea** Industria Elektronikako Ingeniaritza graduko 3. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEAn.



### Zergatik aukeratu zenuen Elektronikako Ingeniaritza? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?

Gaur egun elektronika eguneroko edozein tresnatan aurkitu dezakegu, eta mundu zabal eta interesgarri baten moduan ikusten nuen, nire jakin mina asetzeko nahi nuen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen bere irakaste metodo berritzaileagatik eta nire inguruko pertsonen gomendatu zidatelako.

### Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia paregabea izan da. Asko ikasten ari naiz eta pertsona interesgarri asko ezagutu ditut. Egia esan, aurretik pentsatu izan nuena baino aberasgarriagoa izan da eta hiru kurso hauek oso arin pasatzen ari dira; arinegi, agian. Oso dinamikoa da gure bizitza hemen; ez daukagu aspertzeko astirik.

### Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzi asko ematen zaio?

Ikasteko metodologia bi atal desberdin ditu. Lehenengoa, oinarri teorikoen azterketa, non ikasgai bakoitzeko teoria eguneratu bat jasotzen dugun. Eta bigarrena, POPBL-a (Problem Oriented Project Based Learning), atal honetan aurretik ikasitako oinarri teorikoak praktikara errotan dira taldekako proiektu baten bidez. Alde praktikoari garrantzi handia ematen zaio, izan ere, praktiken

bitartez oinarri teorikoak barneratu eta menperatzen dira. Nire ikasle bizitzan askotan gertatu izan zait ikasitakoari ez niola alde praktikorik ikusten; hemen aldiz, irakaskuntza aplikatua da, oro har.

### Mutik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana unibertsitateko giro alai eta guztiz euskalduna da. Askotan gogorra egiten da etxetik kanpo hainbeste denboran egotea baina bizitza aberasgarriago egiten saiatzen da bertako jendea, ekintza asko antolatzen ditugu honetarako; askotan euskal kulturaren inguruan.

### Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik ez daukat oso argi zer egingo dudan hurrengo urtean. Bi aukera ditut: Erasmusen joatea programan onartzen banaute edo unibertsitateak eskaintzen dituen enpresaren batera joatea praktikak egitera. Gauza bakar bat daukat argi: gradua amaitu nahi dudala gero Master bat egiteko; ez dakit oraindik zein aukeratu, non egin, baina momentuz bidea egin behar dut horretara heltzeko. Etorkizunean, bertako enpresaren baten lan egitea gustatuko litzaidake, uste dudalako Euskal Herrian formatutako ikasleok bertan utzi behar dugula gure jakinduria geure herriaren ekonomia sustatu ahal izateko. •



## Sopela



Roca argitaletxeak plazaratuko du Abrisketaren «ametsa». IÑAKI LEKUE

# «Nobelak bizitza aldatu dit, katarsia izan da»

**Martin Abrisketak bere** lehenengo nobela, *La lengua de los secretos*, kaleratuko du martxoaren 19an. Sopeloztarrak aitaren Gerra Zibileko bizipenak plazaratu gura izan ditu lan honetan, umeez bakarrik duten begirada baikor, sarkor eta inozoa galdu barik.

**G**erra Zibilaren nondik norakoak kontatzen ditu Martin Abrisketak hilaren 19an kaleratuko duen bere lehenengo nobelan. Baina berezitasun batez: ume baten ikuspuntutik egiten du. Bernardo Atxagak honela definitu du: «Bi mundu magikoren nahasketa da. Kontatzeko modua zoragarria da: umorea, poesia eta malenkonia daude. Nobela paregabea da».

**Martxoaren 19an zure lehenengo eleberria kaleratuko duzu. Zein da bertan kontatzen duzun istorioa?**

Eleberri honetan lau umeren bizitza kontatzen dut: Gerra Zibilaren ondorioz euren familiak utzi behar izan zituzten hamaika errefuxiatugaz batera. Arrigorriatik urten eta Tenay izena duen Alpeetako herri txiki batera heldu ziren.

**Istori hori benetakoa da, ezta?**

Bai, protagonistak nire aita eta hiru osabak dira.

**Zer da lan honen bidez ezagutarazi gura izan duzuna?**

Nire aitaren testigantza jaso gura

nuen, berak niri kontatu zidan bezala idatzi gura nuen, gorroto barik, ia sufrimendu barik. Izan ere, bere esperientzia hunkigarria izateaz gain, magikoa ere bada. Gogoratzen dut txikitant pentsatzen nuela nire aita Peter Pan zela: ume galdu bat zelako, guraso barik, babes barik... baina, hala ere, ez zuen beldurrik. Berarentzat gerra jolas hutsa zen.

**Eleberrian errealitatea eta fantasia nahastu dituzu?**

Ez, eleberrian agertzen den guztia erreala da, ikutu magikoa umearen

ulertzeko moduak ematen dio: bere begirada inozoa da, okerra... eta horregatik, hain zuzen ere, zoragarria. Nire aitak fantasiari esker bere haurtzaroa babestea lortu zuen.

**Gerra Zibila kontatzen diguzu, baina ume baten ikuspuntutik. Zaila egin zaizu Martintxoren lekuan jartzea?**

Inola ere ez. Eleberria irakurri duten guztiek galdera hori egiten didate: «Nola lortu duzu ume baten lekuan jartzea?». Erantzuna oso argia da: oraindino ume bat naizelako. Idazten hasi nintzanean horretaz konturatu nintzen. Egia esan, nobelak koskortzen lagundu dit: aurrera eta atzera begiratu, neure buruagaz eta nire aitagaz adiskidetu... Nire aitagaz urruntasun handia izan dut urte askoan, agian gehiegi. *La lengua de los secretos* katarsi bat izan da, bizitza aldatu didan abentura.

**Orain arte kazetari edo gidoigile ibili zara batez ere, zerk bultzatu zintuen nobela bat idaztera?**

Nire aita berreskuratzea zen, hain zuzen ere, helburu nagusia: elkar ulertzea berriro ere. Bere legatua ere zabaldu gura nuen: etsirik ez duen munduarena, gorroto barik, ezinikusi barik... memoria historikoagaz baina mendeku barik. Nire ustez, ontasuna eta inozentzia oinarri dituen ikuspuntu hau oso garrantzitsua da.

**Eta idazteko asmoagaz jarraituko duzu?**

Egia esan, ez dakit. *La lengua de los secretos* idazteko lau urtez egon naiz opor barik, asteburu barik, ia-ia bizitza barik. Gainera, ez nekien esfortzu horrek zentzua zuen ala ez: ez nekien kaleratzeko aukera izango nuen. Azkenean dena irten da ondo, Roca argitaletxeak amets honen alde egin duelako, baina ez dakit prozesu honi aurre egiteko prest nagoen berriro ere. ◀

**Nobelaren lehenengo 45 orrialdeak irakurtzeko:**  
<http://ttiki.com/337607>

**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15

**OSTAIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93

**fugu**

Bar hutean eginda japoniar era tradizionala

[www.fugujasufenas.com](http://www.fugujasufenas.com)

Erantsi Chumua Kale 2 (enpar) - Bichua Zubero enparantza - Areto - GETXO  
944 808 796

Donañata-erresna, Getxo, eta Lurdes

**ITXASGANE**

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA  
Arituze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**GURE ETXEA**  
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

**ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA**

**Iacofris**

MARKA GUZTIAR  
24 ORDUTAN ERANTZUNA  
3 HILABETEKO GARANTIA  
IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORTA  
[www.iacofris.es](http://www.iacofris.es) - [sat@iacofris.es](mailto:sat@iacofris.es)



## Barrika

# HAPO onartzeko bidean dira

**Hirigintza-plana behin-behinean onartu** zuten otsailaren 25ean egindako ezohiko osoko bilkuran; alegazioak aurkezteko epea laster zabalduko dute.



Barrikan zer eraiki daitekeen eta zer ez zehaztuko du HAPOk.

Otsailaren 25eko ezohiko osoko bilkuran onartu zuten behin-behineko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) Barrikako Udaltzatzen. EAJren hiru zinegotziek eta EH Bilduren hautetsi biek euren botoak batu zituzten egitasmoa aurrera ateratzeko. Bestalde, gaur egun zinegotzi bana daukate IBarrikak eta Berdeek, eta horiek aurka bozkatu zuten. Koalizio abertzaleetik zein alderdi independentetik kanpo geratu diren ordezkariak, ostera, ez ziren udal batzarrera aurkeztu. Kontu horiek alde batera utzita, HAPOren hasierako onarpena izanda, alegazioak egiteko aukera zabalduko da hementik gutxira. Baita horiek aztertu eta bozkatzeko aukera ere.

Berebiziko garrantzia daukan egitasmoa izanda, Barrikako HAPOren gainera gehiago espero zuten EH Bilduk, koalizioak azpimarratu duen le-

gez, «gauza positiboak negatiboak baino askoz gehiago dira». Gainera, horren lanketan egondako parte-hartzea nabarmendu dute ezkertiarrek: hasieratik HAPOren Aholkularitza Batzordea egon da martxan. Bertan «herriko elkarte guztiak» batu dira (emakumeena, auzo-elkarteak, ekologistak, kirol-elkarteak, eta abar). Aurreratze-txostena, hasierakoa, herriarren aurrean aurkeztu zen bilera irekian. Herritarren gomendioak jasotzeko epea ere zabaldu zen. Hori gutxi balitz, genero-kuspuntutik HAPO lantzeko lau tailer ireki ere antolatu ziren, Hiria kolektiboaren zuzendaritzapean egindakoak.

IBarrika alderdi independentea, ostera, ez dago ados, «alde batetik barrikotarren iritzia ez dutelako kontuan hartu, eta, beste alde batetik, Udaltzata, batez ere, batzuen interesak kontuan hartu dituztelako».

## Urduliz

## Korrika badatorrela abisatzeko azoka izango da domekan

Hilaren 24an eskualdetik pasatuko da Korrika. Euskararen lasterkerata azken auzokidea ere batu dadin Urdulizen Korrika materialaren azoka antolatu dute domekarako. Antsonekoa plazak hartuko du merkaturako goizeko 11:30etik aurrera. Bertan, Etxeandia garagardoak eta Inola emakume

-elkarteak egindako txistor-pintxoak dastatu, eta Elortzako IGEk eta sokatira-taldeak antolatutako umeen jolasez gozatu ahal izango da. Goizeko 12:30ean sokatira-erakustaldia izango da, eta 13:00etatik aurrera bertsoan ibiliko dira Maddalen Arzallus, Joanes Igeregi eta Jone zein Imanol Uria. ◀

## Berango

## Arabako Errioxa bisitatuko dute berangoztarrek

Oraingoz sagardoaren txotx-garaiaren bagara ere, Berangon datorren hilabeteari eta ardoari begira dardabarduko. Izan ere, Berangoko Udalak Arabako Errioxarako txangoa antolatu du apirilaren 18rako. Egun horretan, Pagos de Leza upeltegia bisitatuko dute, txokolategaz marinatu-

tako ardoa dastatzeko. Horren ostean, Bilarrera joko dute trikuharria ikustera. Guardian, berriz, plaza nagusiko karilloi motako erlojua ikusi eta Erregeen Andre Mariaren eliz atarira sartzeko aukera izango dute Berangotik joandakoek. Azkenik, Haron bisita gidatua izango dute, eta bazkaria, Villa Lucia jatetxean. Martxoaren 18ra arte eman daiteke izena, kultur etxean. Prezioa 30 eurokoa izango da Berango erroldatutakoentzat. ◀

## Uribe Kosta

## Aldaketa soziala helburu, eskualdetik Bilbora deitu dute

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Eskarta sortzen ibili diren eragile sozial eta sindikalek manifestazioa deitu dute zapaturako, Bilboko Jesusen Bihotza plazan, 17:30ean, «dagokiguna eskuratzeko». Uribe Kostan ere, ELA, LAB, Steilas, ESK, EHNE eta Hiru sindikatuek zein Gune plataformako eragile sozialek protestagaz bat egin eta Bilbora joatera deitu dute.

Negurin egindako agerraldian nabarmendu dutenez, «Uribe Kosta aberats askoren bizileku izan arren, bizi dugun errealitate gordinaren kokaleku ere bada. Krisia hasi zenez geroztik, eskualdean hamaika dira etxea kendu



Lezama-Legizamon jauregian izan zen agerraldia.

dietenak, hilabete bukaerara iristeko elikagai bankura jotzen dutenak, lan barik dauden gazteak eta bazterketa sozialean bizi direnak ere».



**Gure Esku Dago** taldeak martxoaren 13an, barikuan, *Jostunak*, herritarren borondateak jositako istorio bat dokumentala proiektatuko du. Hitzordua 18:30ean jarri dute, Berangoeta kultur etxean. Filmak GEDen sorrera eta Durango eta Iruñea arteko giza katea barrutik kontaktzen ditu. ◀



Kazetaritza

# «Sistema zalantzan jartzen dugunok gaude jomugan»



**Espainiako Auzitegi Nazionalak** 18 hilabeteko espetxe-zigorra eskatu du Iraitz Salegi kazetari bergararrantzat; 2013an Ernaik antolatutako Gazte Danbadaren inguruan informatzeagatik terrorismoa goratzea leporatzen diote.



Euskal Herriko 300 bat kazetarik babesa adierazi diote Iraitz Salegiri [www.kazetaritzaezdadelitua.info](http://www.kazetaritzaezdadelitua.info) atarian. GOIENA

**E**kitaldi publiko batez informatzeagatik kartzelara bidali gura dute Iraitz Salegi kazetaria. Horrez gainera, aurretik ere Topatu.info webgunetik hainbat eduki kentzeko agindua jaso zuten. Salegiren ustez, «hori zentsura da».

**Terrorismoa goratzea leporatuta, Auzitegi Nazionalen deklaratu behar izan zenuen Nekane eta Iزارo Zinkunegi kazetariak batera. Ahizpa horien kontrako akusazioa artxibatu dute, baina zure kontrako 18 hilabeteko zigor-eskaerak aurrera darrai. Zer dela eta?**

Topatu.info-ko hiru kazetari izan ginen inputatuak hasiera batean, baina salbuespeneko auzitegi hartako tonbolan niri egokitu zait epaiketaren proiektua eta gure jardunbidea defendatu behar izatea. Harro egingo dut, baina oso larria da kazetari bat kartzela zigorrera kondenatu nahi izatea bere lana egiteagatik. Galdera da ea zergatik ni, ekitaldi hartaz beste medio batzuetako kazetariak ere informatu baitzuten. Zer kontatzen den baino, nork kontatzen duen hartzen da kontuan maiz, eta horrek erakusten du legeak ez duela aurrepegi bera guztiontzat. Ekitaldi politiko baten inguruan informatzeagatik bai-

no, Gazte Danbada jaialdiaren berri emateagatik auzipetu nautela esango nuke. Hiru egunez 7.000 gaztek jendartea eraldatzeko duten grina azaleratu genuen, kronikak idatziz, bideoak grabatuz, argazkiak eginez... Horrek egin zien min, ez ekitaldi politiko baten berri emateak.

## Informatzea delitu bihurtu dute...

Demokraziak bermeak eskaini behar ditu herritar orok informatuta egoteko duen oinarrizko eskubidea gauzatzeko, eta horretarako bidea, besteak beste, komunikabideak eta kazetariak gara. Gure lana askatasunez egin ezin

badugu, hitz egin genezake estatu demokratiko batez? Uste dut erantzuna nahiko argia dela. Kontakizun bakar bat gailendu nahi dute, istorio eta historia bakar bat kontatu. Eta, guk, herri ekimeneko beste hainbat hedabide bezala, ez dugu lan egiten egungo sistema kapitalista heteropatriarkalak bere horretan iraun dezan.

## Lehenago ere itxi zuten Gaztesarea, gazte proiektu komunikatiboa. Zelan ikusten duzu «prentsa askatasuna» delakoa gaur egun?

Gatazka politikoaren aitzakiapen izugarritzko eskubide-urraketak egin dira Euskal Herrian. Komunikabideei ere tokatu zaie hori pairatzea, ongi baitakite ideologian eragiteko duten gaitasuna zenbatekoa den. Eta ez naiz ari iraganaz hitz egiten: urtebete besterik ez da igaro Auzitegi Nazionalak Iruñerriako Ateak Ireki ixteko agindua eman zuenetik.

Prentsa askatasunaz hitz egin ahaliko dugu boterean daudenek onartzen dituztenean herri baten egunerokotasuna kontatu eta historia idazteko modu, kanal eta ikuskera guztiak, ez eurei interesatzen zaiena soilik. Horrek esan nahiko du mezularien (kazetarien) lana errespetatu izango dela, eta kazetari guztiak zilegitasun eta eskubide berberak izango dituztela bai lan egiterako orduan, eta baita Justiziaren aurrean ere. Mementu honetan haiek hautatzen dute nor den kazetari eta nori eman berme horiek; urrun gaude sistema demokratiko batetik. ◀

## OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaiak, baloak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 [gorkaoliarbide@hotmail.com](mailto:gorkaoliarbide@hotmail.com)  
Andikoetxe 2, GETXO



GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA  
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko etxean)



## Hurtzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela  
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28  
[info@anderdeuna.eus](mailto:info@anderdeuna.eus)  
[www.anderdeunaikastola.eus](http://www.anderdeunaikastola.eus)



Especialistas en desayunos abrimos desde las 07:00h. y 08:00h. los fines de semana y festivos  
[www.cafebarzuazua.com](http://www.cafebarzuazua.com)  
Iturgibi 13, PLENTZIA  
Tf. 94.677.31.28



**Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!**  
Bentabxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA





Elgetan bertan, 1936ko gerraren berregitea antzeztu zuten 2013ko apirilaren 28an. GOIENA

# Elgetara doaz!

**Udaberriko lehenengo berbatxangoa** egingo dute hilaren 15ean Berbots, Aitxu eta Egizuk. 36ko gerrako frontera, lubakietara, joango dira.

**U**daberriko lehenengo berbatxangoa antolatu dute martxoaren 15erako, domeka, Erandioko Berbots, Sopelako Aitxu eta Getxoko Egizu taldeek, ohi den legez, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz. Oraingo honetan Elgetara joango dira, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrora,

36ko gerraren frontearen kokalekura, lubakietara... Hala, 08:30ean Sopelako eliza aurrean, 08:45ean Algortako Telepizzan eta, apurtxo bat berandua, 09:00etan Erandioko gasolinoan egongo da autobusa hartzeko aukera. Bisita gidatua 10:30etik 14:00etara izango da, antolatzaileek adierazi dutenez. Bueltan 15:00etan abiatuko

dira Elgetatik. Salneurria 5 eurokoa da, autobusa eta mokadua barne, helduentzat; eta doan, umeentzat. Aldez aurretik eman beharko da izena. Horretarako, Berbots, Aitxu eta Egizu euskara elkarteetara jo beharko dute 36ko gerraren Elgetako aztarnak bisitatu gura dituztenek.

## Erakusketa eta lubakiak

Atal nagusi bi dauzka Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroak. Lehenengoa, erakusketa iraukorra da. Espaloia Kafe Antzokian dago kokatua eta garaiko hainbat arma, tresna, egunkari eta abar daude ikusgai, maketa eta azalpen grafikoz. Bigarrena, 5 kilometro inguruko ibilbide tematikoa da, frontearen kokalekuetan barrena, berreskuratu diren babesleku, lubaki eta parapetoak ikusgai daudela. Ibilbide hori egiteko bisita gidatuak antolatzen ditu zentroak, hileko lehenengo domekan (euskaraz), azkeneko domekan (elebiduna), eta taldeentzat, beste edozein egunetan. Azken kasu horretan, aurrez erreserba egitea beharrezkoa da. ◀

Info +: [aitzuizuba@gmail.com](mailto:aitzuizuba@gmail.com) / 603 894 364  
[egizuetxo@gmail.com](mailto:egizuetxo@gmail.com) / 644 277 155  
[berbots@gmail.com](mailto:berbots@gmail.com)



Reziklontzi lehiaketa eta erakusketako argazkiak. ZARAMARI

## Birziklapenaren beharra artearen bitartez bultzatu gura dute Getxon

**M**artxoaren 16tik apirilaren 24ra bitarte egongo da hondakinen edukiontzia apaintzeko BirziklaTUarte lehiaketan izena emateko aukera. Sariketan 16 urtetik gorako getxoztarrek parte hartu ahal izango dute, bakarka edo taldeka; hiru lagunek osatutako taldeetan. Lehenengo, bozetoak aurkezteko epea zabalduko da. Epe hori itxi ostean, lanak baloratu egingo dituzte eta sei aukera-

tuko dira, bakoitza bere edukiontzian gauzatzeko. Margotze-lanak maiatzaren 23an edo 30ean egingo dira, eguraldiak horretarako aukera ematen badu. Ostean hautatuko dituzte irabazleak. Lehenengo saria 900 eurokoa da, eta bigarrena, 200 eurokoa. BirziklaTUarte egitasmoa bigarren suertatu zen Getxoko Udalak antolatutako Wanted sariketan. ◀

Info gehiago: [birziklatuarte.wordpress.com](http://birziklatuarte.wordpress.com)

## Hamaika orduz ospatuko dute Kurtzio Eguna

**M**artxoaren 14an, zapatua, kulturaz lepo egongo da Kurtzio kultur etxea. Bosgarren urteurrena ospatzeko asmoz, hamaika orduz jarraian izango dira mota guztietako jarduerak, ikuskizunak, tailerrak eta abar. Udal arduradunek adierazi dutenez, «11 orduetan, Kurtzion jarduera ugari izango ditugu, kultur etxeko areto ezberdinetan; kasu batzuetan, aldi berean. Kurtzioko zirrikitu guztiak eza-gutzeko aukera izango dugu».

Egitaraua goizeko 11:00etan hasiko da, Imanol Ituño magoagaz, pasilloetan barrena. Ostean etorriko dira gazteentzako grafiti-tailerra, musika eta dantza, lunch-a, literatur solasaldia eta beste hainbat ekitaldi. Eguna biribiltzeko ikuskizun bi egongo dira: 19:30ean Xabi Aburruzagaren kontzertua Aitor Antruejogaz batera, eta ordubete berandua Tartean konpainiaren *Pankreas* tragikomedia eza-guna (sarrera sei euroan). Egun osoan, gainera, Zirrimarra pintura-taldearen

erakusketa egongo da, argazkiak ikusi ahal izango dira, eta Sopelako kultur ekitaldien bideoak ikusgai egongo dira Kurtzion, beste hainbat jardueraren artean. ◀

## Egitaraua

### Martxoak 14, zapatua

- 11:00** Imanol Ituño magoa.
- 11:30** Gazteentzako grafiti-tailerra.
- 12:30** *Metalen kontzertu txikiak* musika-saioa, Alberto Urretxuren taldearekin.
- 13:30** *Dangerous Love* dantza-ikuskizuna, Magali Moso, Leire Rada eta Amaia Sinobasekin.
- 14:30** Lunch-a, Sopela Kantarirekin.
- 17:00** Khomakey efektuarekin jolasean.
- 17:30** *Nire libururik kutsun ena* solasaldia, Danale Sarriugarterekin.
- 18:30** Artzerki-tailerra, Jon Urrazaren zuzen dartzapean.
- 19:30** Xabi Aburruzaga (trikitia) eta Aitor Antruejoren (gitarra) kontzertu akustikoa.
- 20:30** Tartean konpainiaren *Pankreas* antzezlan, euskaraz. Sarrera: 6 euro.



2015eko martxoaren 12tik martxoaren 18ra arte



hiruka.eus



URIBE KOSTA

## Korrika abiatu artean, beroketa-lanak hasi dira

Korrika 19.aren hasiera gero eta gertuago daukagu eta herriz herri antolatutako batzordeek daborduko hasi dira «beroketa-lanak» egiten. Horrenbestez, hurrengo egunetan ugariak izango dira afariak, diru-bilketak eta bestelako ekitaldiak. Besteak beste, hilaren 13an, barikua, *Herioza* kale-antzezlan eskainiko du Xapoka taldeak Plentziako eliz plazan. Saioa

19:30ean hasiko da. Egun berean, The Great Barrier taldeak eskainiko du kontzertua Gorlizko Iberre plazan, 22:00etatik aurrera. Zapatuta helduta, Korrika Kulturalaren emanaldietako bat hartuko du eskualdeak: Joseba Sarrionandia idazlearekin eta Jose Luis Goikolea zein Iñigo Arregi artista plastikoekin osatutako *Gosarria* eszenatokia eramateko ardura

edukiko du Gose taldeak, 20:30ean, Erandioko azoka zaharrean. Sarrera doan izango da, edukiera bete arte. Hurrengo egunetan ere egongo da zertaz gozatu: bertso-pilotako jaialdia hilaren 15ean, 12:00etan, Leioako Sakoneta kiroldegian; egun eta ordu berean bertso-azoka, Urdulizko Antsoonekoa plazan, eta beste hainbat ekitaldi, herriz herri. ◀

LEIOA

### Hatz lodia altxatu eta irudimena aske uztean hasiko da dena

Oraingo honetan ipuin klasiko baten moldaketagaz dator Teatro Paraiso antzerki-taldea. Martxoaren 15ean, domeka, *Epurutxo* lana antzeztuko du Kultur Leioan, 18:00etan. Sarrera 5 euroan egongo da. Istoriolari dagokionez, ume txiki eta burutsu batek anaia-arreba eta senide guztia salbatuko ditu, nahiz eta gurasoek, baliabiderik ez dutelako, eisita, basoan utzi arren. Ipuina iruditeri kolektiboaren parte da. Istoriorekin hainbat zatik hunkitu egiten gaituzte: nor ez da basoan galdu eta bakarrik gelditzeko beldur izan? Nor ez da ogro maltzurratean beldur izan? ◀



BERANGO

### Eskerne eta Argiñe kontu-kontari

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna atzean utzi arren, oraindino aurrera jarraitzen dute Berangoko Udaleko Berdintasun Arloak aidarrikapen horren inguruan antolatutako ekitaldiek. Hala, martxoaren 15ean, domeka, *Eskerne eta Argiñe jolasean* izenburuko saioa eskainiko du Dandana taldeak. Hitzordua 18:00etan jarri dute Berango Antzokian, sarrera doan. Bestalde, hilaren 21ean, *La caza* filma egongo ikusgai 12 urtetik gorakoentzat, 19:00etan, sarrera doan. ◀



2015/03/14

### La ultima oportunidad umorezko antzezlanaren helduentzat

Berango Antzokia | Berango  
Gaztelaniaz izango da  
Sarrera doan  
19:00

2015/03/12

### Emakumeak kontatzen ipuin-kontaketa

Algortako kultur etxea | Getxo  
5 urtetik gorako umeentzat, Apikarekin  
Euskaraz izango da  
Sarrera doan  
18:00

2015/03/12

Emakumeak kontatzen ipuin-kontaketa



## Kantagunea egingo dute berriro Plentzian

Martxoaren 13an, barikua, Plentzian ibiliko dira kalez kale. Ohi den legez, Kantagune izeneko ekimenak baselizan jarri du hitzordua 19:00etan, entsegua egiteko. Eta 20:30ean kalejira egingo du alde zaharretik, Eliz plazan hasita. ◀

## Abian Fest ospatuko dute hilaren 14an

Martxoaren 14rako, zapatua, 21:00etan, jaialdia antolatu du Abian Kultur Elkar-teak. Afaltzeko *hot dog* eta sandwichak egingo dira. The Guilty Brigade, Garra-sika, Smoking Barrels eta Shock Waves taldeek joko dute (5 euro). ◀

## Produktu ia berriak salgai, Urizarren

Hilaren 15ean azokatxo prestatu du Le-moizko ikastetxeko gurasoen elkarteak. 11:00etatik 13:00etara produktu «ia berriak» erosteko aukera egongo da udal-letxe parean. Dirua txango, materiala eta abarretarako erabiliko dute. ◀

## High Felicity rock-taldea

**West Side Bar taberna | Getxo**

Getxo Zuzenean zikloaren barruan Sarrera doan

20:00

2015/03/13

## Pirritx, Porrotx eta Mari

### Motots

**Kandelazubieta kiroldegia | Leioa**

*Txo, Mikmak* *bikia* ikuskizuna eskainiko dute, Betiko ikastolaren 50. urteurrenaren ekitaldien barrian

Sarrera: 8 euro (Leioako Betiko, Sopelako An der Deuna eta Algortako San Nikolas ikastolatan salgai)

Sarrera: 8 euro

17:00 eta 19:30

2015/03/13

## Lointek txirindulari-taldearen aurkezpena

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**

Sarrera doan

17:00

2015/03/13

## Zineforuma

**Emakumeen Elkartea | Erandio**

Pelikula ostean, solasaldia eta moka duak

Gaztelaniaz izango da

Sarrera doan

18:00

2015/03/14

## Kurtzio Eguna

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**

Bosgarren urteurrena ospatzeko asmoz, hamalaka orduz jarraian izango dira mota guztietako jarduerak eta ikuskizunak

11:00

2015/03/14

## Storytime umeentzako ipuin-kontaketa ingelesez

**Getxo Elkartegia (Ogoño, 4) | Getxo**

Kids&Us Geboarekin

Sarrera doan, edukiera bete arte

11:00

2015/03/14

## Toy-O diziplina anitzeko ikuskizuna

**Altzaga ikastola | Erandio**

Bildutako dirua DEHko 4. mailako ikasleen ikasbidaiarako izango da

Euskaraz izango da

Sarrera: 3 euro

18:00 eta 21:00

## Manu Baeza eta Miki Dkairen bakarrizketak

**Josu Murueta kultur etxea | Erandio**

Encomediados bakarrizketa-zirkuituaren barruan Gaztelaniaz izango da

Sarrera: 2 euro (kultur etxean eta udal-etxean salgai egongo dira)

20:00

2015/03/14

## El principio de arquimedes antzezlan

**Andres Isasi musika-eskola | Getxo**

Lola Baldrich eta Javier Pereirarekin

Gaztelaniaz izango da

Sarrera: 15 euro

20:00

2015/03/14

## San Patrizio eguneko kontzertua

**The Piper´s Irish Pub | Getxo**

Con Triastes taldeak joko du

22:00

2015/03/15

## Meñakoz elkartearen udaberri-jaia

**Udaletzeko plaza | Sopela**

Goizean, pan dero-joleak, euskal dantzak, musika eta giro jatorra egongo dira. Eta arrastian, dantza-plaza, Saltoka taldearen eskutik.

12:30 / 17:00

2015/03/15

## Malefica filma gazteentzat

**Andres Isasi musika-eskola | Getxo**

Gaztelaniaz izango da

Sarrera: 2,10 euro

17:00

2015/03/18

## Txikipoesia saioa

**Villamonteko haur liburutegia | Getxo**

Anabel Murorekin (gaztelaniaz) eta Aitor

Txarterinarekin (euskaraz), 8 urtetik

beherakoentzat

Sarrera doan, edukiera bete arte

18:00

2015/03/18

## Erandioko Musika Eskolaren piano-ikasleak entzungai

**Josu Murueta kultur etxea | Erandio**

Sarrera doan.

19:00



# Laburbiraren zain, Erandion

Euskaltzaleen Topagunearen ekimenez, euskarazko zortzi film labur ikusgai egongo dira, Altzagan, emakumeen elkartaren egoitzan; sarrera doan. Ordu eta laurdeneko emaldian, sormena, dokumentala, fikzioa zein animazioa bantzen dituzten ikus-entzunezkoak proiektatuko dira. ◀

**Noiz:** Martxoak 12, eguena, 19:00

**Non:** Emakumeen elkartearen egoitza (San Agustin eliza ondoan)

**Sarrera:** Doan

Berbotis Erandion Euskaraz taldeak antolatatu du saioa

**1** Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

**1** Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

**2** [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.





Adimen-garapena

**GORKA  
AURRE URTZAA**  
Irakaslea

## Ulermen jasoz irakurri

noiz baino premiazkoagoa dugu azkar eta ulermen jasoz irakurtzen ikastea hainbat bidetatik iristen zaizkigun informazio kopuru handiak barneratu beharrak eraginda. Behar diren teknikak erabiliz askoz azkarrago irakurtzeko gaitasuna izateak informazio gehiago irakurri, norbere hiztegia aberastu eta eduki askoz gehiago epe laburrean memorizatzea ahalbidetzen du.

Irakurketari ez zaio inolako garrantzirik ematen. Gurasoek hainbatetan aipatzen dute irakurketaren garrantzia, baina askotan adierazpen hutsalak dira. Praktikatzan ez den ekintza baten inguruko azalderia. Irakurketa hobetzeko ez da ahaleginik egiten. Ematen diogun garrantziaren seinale.

Gutxi irakurtzen da eta egiten denak kalitate gutxi du. Astiro eta ulermen gutxiz irakurtzen da. Akats asko ditu ohiko irakurketak. Astiroegi irakurtzeak ulermena eragozten du, irakurketa-abiadak ulermenezko irakurketarekin zerikusi zuzena baitauka. Ohiko irakurketaren akatsak zuzendu eta azkar irakurtzeko teknikak nork bereganatzeak, irakurketa errotik hobetzen du. Geure esku dago hobetzeko erabakia hartu eta beharrezko urratsak ematen hastea edota daukagun irakurgaitasun motelarekin jarraitzea.

Ikasturtea bide erdian dugu eta gutxi barru, ikasleen arazo, larritasun eta gainditu beharrek egoerak, gurasoen egonezin eta urduritasunerako, azalduko dira.

Egungo ikasleen arazorik gehienak, eskolan ikasitako ohiko irakurketatik eta ikasteko metodologia eraginkorrak irakatsi ez izatetik eratorriak dira. Ondo irakurtzen jakin ezik ez dago ondo ikasten jakiterik eta ikasten jakin ez izanaren ondorio nagusia gurasoak artega jartzen dituzten emaitza txarrak eta gainerako arazoak dira. ◀

# Herri Unibertsitatea egingo dute campusean



Orain egun batzuk aurkeztu zuten Herri Unibertsitatea Leioako campusean.

**Otsailaren 26ko greban,** Madrilek eta Gasteizek ezarri gura dituzten hezkuntza erreformak salatu zituzten 13.000 ikasle inguruk. Halaber, aldarrikatzen duten eredu herritarra eraikitzen hasiko direla ohartarazi zuten. Bide horretan, Herri Unibertsitateak egingo dituzte.

**B**este hainbat campusetan legez, martxoaren 16tik 18ra EHUren Leioa eta Erandioko eremuan Herri Unibertsitatea egingo dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, besteak beste, Medikuntza, Zientziak, Arte Ederak, Gizarte Zientziak eta Komuni-

kazioa eta Zuzenbideko asanbladetak ikasleak dabilta antolaketa-lanetan; baita asanblada feminista, Ikasle Abertzaleak eta Leioatik! komunikazio proiektuko kideak ere. Hala, lehenengo egunean, hilak 16, 09:00etan jarri dute manifestaziorako ordua Mikel La-

boa plazan, ostean hainbat ikastegitan egingo diren eskola eta tailerretara abiatzeko. Bi egunez egongo da hainbat gai jorrazteko aukera. Bestetik, ikasleek gainera, beste hainbat subjektu inplikatu gura izan dituzte antolatzaileek: «bestelako eragile sozialek defendatzen duten hezkuntza-ereduan ezinbestekotzat jotzen dutelako herriko jakintzak klasera eramatea». Hilaren 18an hainbat arlotako herritarrek ere parte hartuko dute «amaiera handian». ◀

Info+: [ikasleeztanda.net](http://ikasleeztanda.net)

## Antartikara joateko aukera emango du EHUk

**A**ntartikan egonaldi artistikoa egingeko lehenengo beka zabaldu du EHUk, Arte Ederren Fakultateko graduako, masterreko eta doktoregoko ikasleei zuzenduta. Ekimenak teknologiararen eta naturaren arteko lotura sendotu gura du, artistak inguru zientifiko batean egonaldia egitera bultzatuz. Beraz, bekarako aurkeztutako proiektu artistikoei natura eta teknologia buztartu beharko dituzte. 2015eko urrian eta azaroan izango den lehen egonaldiak 20 eta 40 egun artean iraungo du, lekuko klima aldakorrak horretarako aukera badu. Hautatutako ikasleari, Buenos Aireserako hegaldia (joan-etorria), base zientifi-

kora garraioa, ostatua, mantenua eta aseguru soziala eskainiko zaizkio. Barentzako tokia baino ez dago.

Bestalde, Boise State Universityk (BSU), Idahoko Estatuan, AEBko Mendebaldean, Master eta Doktorego beka atera ditu Euskal Herriko ikasleentzat. Bekek urtebeteko iraupena dute, matrikula-gastuak ordainduko dituzte, eta, horrez gain, 18.000 eta 25.000 dolar bitarteko diru-laguntza ere emango da egonaldi-gastuetarako. Eskaerak martxoaren 15a baino lehenago bidali beharko dituzte Lizentziatura edo Master ikasketak 2015ean bukatu dituztenek. ◀

Info+: [ehu.eus](http://ehu.eus)

## Mikromatxismoa bistaratzeko lehiaketa abiatu dute Topatuk eta Gaztezulo aldizkariak

**G**aztezulo aldizkariak eta Topatu.info atariak Bistaratu mikromatxismoa gazteentzako sorkuntza-lehiaketa antolatu dute elkarregaz. Ilustrazioak, argazkiak, testuak eta ikus-entzunezkoak izango dira sorkuntza-esparruak. Hala, idatzizko lanek sei mila karaktere eduki beharko dituzte gehienez, eta bideoek, hiru minutu. Lanak aurkezteko epe-muga martxoaren 30a izango da. Azaldu dutenez, «matxismoa ageriko indarkeria sexistarekin lotzen badugu ere (jipoekin berbarako), sarritan ez dugu erraz antzematen horren agerikoa ez dena, eta oharkabean igarotzen da». ◀

Info+: [gaztesorkuntzalehiaketa.net](http://gaztesorkuntzalehiaketa.net)







## «Botere-harremanak orekatu behar dira»

**Nicola Foroni (Erroma, 1960)** italiarra da sortzez, 21 urtegez Nikaraguara joan zen kooperante. Ondoren, El Salvadorrera jo zuen, eta bertan Fastras fundazioagaz hasi zen lanean. Gerra ostean, CIAZO fundazioaren zuzendari izendatu zuten. Gaur egun Euskal Herria du bizileku, eta eraldatze-prozesuen bideratzaile-lanetan dihardu.



IKER RINCON

**Italiarra zara sortzez; hala ere, azken 15 urteotan Euskal Herria duzu bizileku. Zerk eraginda etorri zinen hona?**

Maitasunak, noski; nire bikotekidea euskalduna da. El Salvadorren ezagutu genuen elkar, eta han bikote egin. Europara bueltatu ginenean, Italiara edo Euskal Herrira etortzea pentsatu genuen, eta, azkenean, Euskal Herria aukeratu genuen, bere sustraiak nireak baino indartsuagoak eta sakonagoak zirelako.

**Euskal Herriaz gainera, hainbat lekutan bizi izan zara, tartean, Nikaraguan. Bertara 21 urtegez joan zinen, kooperante lan egiteko...**

Adin horretan mundu hobe bat nahi nuen, justuagoa; eta horrek Latinoamerikara joatera bultzatu ninduen. Kooperante gisa joatea, zentzu batean, nik barnean nuen elkartasunaren eta gizatasunaren nahasketa baten ondorioa izan zen; eta, bitartean, borrokaren eta gizartearen eraldaketarako grina eraikitzen hasi nintzen. Hala, 21 urte nituela, erabakia hartu eta Latinoamerikan boluntarioak lanean ziharduen Gobernu Kanpoko Erakunde batez harremanetan jarri nintzen. Nikaraguarena kasualitate hutsa izan zen: Managua inguruan zegoen eskola batean gozogile-okin bat behar zuten, eta nik horretan lan egiten nuen...

**Sei urte eman zenituen bertan.**

Hasiera batean, institutu tekniko batean klaseak

ematen hasi nintzen, eta konturatu orduko, eskolatik irteten ziren irakasle eta ikasleak ogi-produkzioarako kooperatiba txiki bat osatu nuen. Hortik aurrera, El Salvadorretik etorritako errefuxiatuen produkzio-elkarte txikietan laguntzen hasi nintzen, Nikaragua iparraldean.

**“Txiroentzako hezkuntza-prozesuak garatzea terrorismotzat hartzen zuen El Salvadorreko gobernuak”**

**El Salvadorretik heldutako errefuxiatuakaz lan egin ostean, El Salvadorrera joatea erabaki zenuen. Gerra-garaiak ziren, zelan bizi izan zenuen egoera hori?** El Salvadorreko gerra zibila latz-latza izan zen; errepresio bortitza jasan zuten bereziki herri inguruetako herritarrek. Hala eta guztiz ere, zailtasunek bat egin zuten une historiko berean: txirotasuna, errepresioa eta sufrimendua, alde batean, eta borroka, aldaketarako grina eta konpromiso sendoa, bestean. Eraldaketa milaka herritarren nahia zen, justizia sozial baten aldeko apustua. Eraldaketa hori beharrezkoa ikusten zuten, eta egindako lanagaz, konpromisoagaz eta borrokagaz posiblea zela ikusten zuten.

**Hezkuntzaren arloan lan egin zenuen bertan...**

Bai, nagusien alfabetatze-prozesuetan lanean hasi ginen, hainbat eragile sozialez osatutako sare batez elkarlanean. Une horretan, herritarren zati handi batek ez zuen eskolaratzeko aukerarik, eta analfabetismoa oso handia zen. Estatuak ez zuen ezelako zerbitzurik eskaintzen herritarren beharretara begira. Hori dela eta, mugimendu sozialek, aldaketarako borrokagaz batera, herritarrentzako programa zehatzak bideratu zituzten: hezkuntzarako, osasunerako, produkzioarako, formakuntzarako... Gu alfabetizazioaren arloan lan egin genuen, herri-eskoletan.

**Gerraren ostean, bake-garaietan bake-hezkuntzaren inguruan jardun zenuen, ezta?**

El Salvadorren txiroentzako hezkuntza-prozesuak garatzea terrorismotzat hartzen zuen Estatuak; are gehiago, herri mugimenduko taldeakaz egiten bazen. Hori horrela, hezkuntzaren eta osasunaren alde lan egiteaz gain, automatikoki giza eskubideen defentsan lan egitera egiten genuen salto. Gure alfabetizazio-programak «Alfabetizando para la paz» zuen izena; horregaz, gizartearen errealitatea eraldatu eta bake berri bat eraiki nahi genuen. Ez soilik gerrarik gabeko bakea, baizik eta «giza justiziaren bakea». Bake-akordioak sinatu zirenean, horrek guztiak gizartearen zati bat kultura berri baten alde lan egitera bultzatu zuen, bakearen kultura... Horretarako hainbat gauza egin behar ziren: borrokalaria ohien gizarteratzea, oinarrizko zerbitzuak bermatzea, baldintza





demokratiko minimoak berrezartzea, errepresioaren amaiera, egiaren batzordearen lana eta zigorgabatasunaren amaiera, besteak beste. Ni bi edo hiru urtez horren parte izan nintzen, herri mugimenduaren ordezkaria nintzen Bakearen Kulturaren Batzorde Nazionalan. Programa hori UNESCOk bultzatu zuen, Estatuaren eta gizartearen arteko eztabaidak bermatzeko eta Bakearen Kultura berria sortzeko.

#### **Zeintzuk osagai behar dira orokorrean gizartearen eraldaketa-prozesu bat gertatzeko?**

Zaila da galdera horri erantzun azkarra eta eskemati-koa ematea, prozesu konplexua eta aldakorra baita, faktore ugari eragiten diote. Hala ere, nik azpimarratuko nuke eraldaketa hori gertatzeko hainbat gako behar direla. Aldatzeko beharra dago, bai, baina kontzienteki egin behar da. Eraldaketa sozialak identitatearen berrirakurketagaz eta definizio berri batez egiten dira; hori dela eta, prozesuaren parte diren subjektuek kontrolatu eta kudeatu behar dituzte prozesu horiek. Era berean, beharrezkoa da botere-harremanak ere aldatzea; botere-harreman orekatu-agoak bilatu behar dira, berdintsuagoak. Beste gakoak eraikitze libre eta sortzailea da; aukera berriak sortzeko eta adierazteko askeak izan behar gara, beldur barik bizi behar dugu. Azken finean, eraldaketa sozialaren prozesuak honela defini genitzake: «eraldaketa prozesuak aldaketa-prozesuan gauden pertsonak / taldeak gara, gure osotasunetik (norbanakoan eta taldean) errealitate zehatz batean eragiten dugu-

nak». Hori dela eta, gure arrazionaltasunagaz batera, beharrezkoa da gure subjektibitatea agertzea.

#### **Martxoaren 3an parte-hartzearen inguruko jardunaldian hartu zenuen parte Algortan. Euskal Herrian parte-hartzeak zelakoa izan behar duela uste duzu?**

Uste dut beste tokietan bezala, parte-hartzeak gure identitateagaz eta baldintzakaz errotuta egon behar duela. Errealitate zehatz batetik eta jendearen apustu batetik eraiki behar da.

#### **Parte-hartzea nondik bultzatu beharra dago, herritik edo instituzioetatik?**

Esparru eta pertsona guztietatik. Ez da nahastu behar orain arte historikoki jokatu den rola: instituzioen gestioa-kontrola-arauketa eta herri mugimenduen apurketa-aldaketa-demokratizazioa...

Gizartearen denok hartu behar dugu parte eraldaketa-prozesuan: herri-mugimenduak, herritarrak eta instituzioak. Beste modu batera esanda: instituzioak geureganatu behar ditugu eraldaketaren zerbitzura egon daitezten. Hori gertatzen den bitartean, logikoki, parte-hartze prozesuak bermatzeko oinarritik eraikitzen hasi behar dugu, herritarrengandik. Horrek ez du esan nahi instituzioetatik ezin dela edo ez dugula parte-hartzea bultzatu behar. Ez dut uste elkarren aurkako prozesuak direnik.

#### **Gizartea badago prest parte-hartze horretarako?**

Gizartea prest dago, eta era berean ez dago prest. Gi-

zarteak kontraesan askogaz eztabaidatzen eta eraikitzen du, guk egiten dugun bezalaxe. Kontraesan horien baitan, gizartean beti daude faktoreak, egoerak, indarrak, subjektuak, energiak, balioak... aldaketa eraikitze bermea eskaini dezaketenak. Zailena horiek identifikatzea da, gai izatea horiekaz lan egitea gure pentsatzeko eta ekiteko moduagaz kutsatu barik. Gizartean eztabaidatu behar da. Nik esango nuke gizartea beti dagoela prest aldaketa baterako. Testuinguruak errazagoa edo zailagoa jar dezake, baina beti dago aurrera egiteko modurik. Beste kontu bat da ea gu prest gauden eraldaketetarako behar diren denbora pedagogikoetarako. Prozesu oso luzeak izan daitezke, baina ez dugu itxaropena galdu behar; baldintzak lagun ditugunean, aldaketa oso sakona izan daiteke denbora tarte laburrean...

#### **Askotan aipatzen duzu boterearen arteko erlazioak birdefinitu behar direla. Zein zentzutan?**

Zentzu guztietan. Eraldaketa prozesu kontzienteak ez dira neutroak. Justizia, berdintasuna eta armonia bilatzen dituzte, eta horregatik botere-harremanen aldaketagaz lotuta etortzen dira. Nire ikuspuntutik, boterea ez da mugatua; hau da, norbaitek boterea irabazten duenean ez du zergatik beste batek galdu behar. Botere berriak eratu daitezke eta botere-harreman berriak birdefini daitezke pertsona / talde guztiek boterea irabazteko.

#### **Udal askok diote parte-hartzea sustatzen dutela, baina herritarrak informatzen dituzte, besterik ez...**

Informazioa oinarritzkoa da prozesu parte-hartzaile guztietan eta demokrazian. Hala ere, ez dugu nahastu behar informatzea parte-hartzeagaz. Hain zuzen ere, instituzioen gestioa ez da oso gardena izan, eta demokrazia guztiz indargabetu dute. Instituzio ugari uste dute informazioa emateagaz parte hartzea sustatzen ari direla, eta hori ez da horrela. Gardentasuna eta informatzea gauza positiboak dira, baina hasiera baino ez dira, oinarritzkoegiak eta parte-hartzea sustatzen ez dutenak. Parte hartzea harago doa; herritarren iritzia kontuan hartu eta erabakitze benetako guneak eraiki behar dira.

**“ Parte-hartze prozesuetan herritarren iritzia kontuan hartu eta erabakitze benetako guneak eraiki behar dira ”**

#### **Gaur egun jendeak ez du instituzioetan sinesten. Zelan eman dakioke horri buelta?**

Koherentziagaz lan eginez eta errealitatetik konfiantza hori berreraikiz, ez soilik desiretan oinarrituz... Berreraikitze-prozesu horretan ere jendearen benetako inplikaziorako baldintzak sortu behar dira, jendea eboluzionatzeko eta subjektu aktibo bilakatze-ko. Herritarrak ez dira izan behar soilik zerbitzuen hartzaileak. Zentzu horretan, uste dut, muga eta kontraesan guztiakaz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ahalegina eta lana nabarmendu behar dela, du-darik gabe bide onean doalako... ◀





Bere txapelak emakumezkoak zein gizonezkoak esku-pilotan jokatzera anima ditzan gura luke.

## «Esku-pilotan gozatzeko esango nieke neskei»

**Jone Aranguren Perezek** emakumezkoen Bizkaiko binakako esku-pilota txapelketa irabazi berri du.

**U**mil dabil Aranguren, Haur Hezkuntza ikasketak dituen 24 urteko gazte algortarra. Esku-pilotara heldu berria izanda eta ikastolan lanean, helburu pedagogikoa jarri dio txapelari: emakumeei jokatzeko adorea ematea.

**Bazen garaia Emakumeen Kopa bezalako zerbitu antolatzeko, ezta?**

Bai. Bazen garaia emakumeak jokatzera animatzeko. Espero dut horrek jende asko bultzatzea; bakoitzak bere herrian taldea sortzea edo jokatzera. Jende askok beldurra dauka: pilota gogorra dela, mina... Guk egokitu egin ditugu pilotak gure indar eta fisikora; nik eskua ezin hobeto daukat. Hortaz... ez dago aitzakiarik... [kar-kar].

**Atzean zenbat lan egon da?**

Kristorena, Larrabetzuko emakumeek egina. Ama batzuk hasi ziren: alaba

txikitxoek jokatzeko zuten, haiek ere jokatzeko hasi ziren. Ama baten senarra Bizkaiko Federazioan dabil eta horrek bultzatu du nahikotxo: materiala eman, federatzera animatu eta Txokoan emakume-pilotarien elkarte sortzea gomendatu zuen.

**“Pasa den abenduan hasi nintzen esku-pilotan entrenatzen, Larrabetzun”**

**Zelan sartu zinen Txokoan taldean?**

Kasualitatez. Nik palan jokatzeko dut Getxon. Ikastolako lankide baten alabak, Arrate Gazteluk, hirugarren sailkatu denak, Larrabetzun jokatzeko du. Ikastolan hitz egiten genuen; esku-pilota asko ikusten dut telebistan; beti gustatu izan zait eta neure burua esan nion: «joango naiz». Pasa den abenduan hasi nintzen.

**Txokoan zein esku-pilotan?**

Bai. Galdetu nion Getxoko pilota-taldea daroan Enaitz Betanzosi ea he-

men bazegoen neskentzako zeozer eta ezetz: ez dago neskarik eskolan. Orduan esan nuen: benetan nahi badut hara joan beharra daukat.

**Eta non entrenatu duzu?**

Larrabetzun. Hara joaten naiz beti. Hemen ez zegoen aukerarik. Hemen-go eskola ia hilda dago eta ez dago ia umerik. Gura dute ikastetxeetan aurkeztea, indarra emateko. Neska txikiak hasiko direla uste dute. Ea!

**Izandako oihartzuna espero zenuen? Inondik inora, ez. Kristorena izan da.**

**Zer sentitu zenuen txapela janztean?**

Lasaitasuna! [kar-kar]. Aste osoan oso-oso urduri egon naiz; mila dei; mundu guztiak esaten zidan partidua ahazteko, baina ezinezkoa izan da: ha maika elkarriketa, argazkiak... Ikusi nuenean 22ra heldu ginela... puff! Lasaitasuna: amaitu da dena.

**Zer gomendatuko zenieke orain esku pilotan dabiltzan neskatoei?**

Jarraitzeko, gogor entrenatzeko eta, batez ere, gozatzeko. ◀

## Espainiako urpeko arrantza txapelketa Getxon

**G**etxok hartuko du Urpeko Arrantzaren Espainiako Txapelketaren 54. edizioa ekainaren 26tik 28ra. Antolatzaileak Getxo taldea eta Berangoko Olagarro elkarte izango dira, Euskal Herriko Urpeko Ihardueren Federakuntzak (EHUIF) zabaldu duenez. Txapelketaren nondik norakoak laster emango dituzte ezagutzera.

**Open Duos Getxo**

Open Duos Getxo Arrantza sariaren II. edizioaren izen-ematea daborduko zabalik dago. Proba apirilaren 25ean egingo da, 15:30ean, Bizkaiko Zubia- ren ondoan, Areetako aldean, eta Lamiakoko arrapatatik Txurrukako puntaraino jarri ahal izango da kanabera. Inskripzioa apirilaren 17ra arte egin ahal izango da, Getxo Arrantza taldearen kontuan dagokion dirua sartzean norberaren datuak emanez. Prezioa 50 eurokoa da federatuentzat, eta 60koa, federatuta ez daudenentzat. ◀

Info+: [Getxoarrantza.blogspot.com.es](http://Getxoarrantza.blogspot.com.es)



© BIZKAIKO GIMNASTIKA FEDERAZIOA

## Gimnasia erritmikoko lehiaketa Urkon

**D**omeka honetan, hilak 15, Larra- basterrako Urko kiroldegia hartuko du haur eta kimu mailetako gimnasia erritmikoaren Bizkaiko taldekako txapelketa. Goizeko 10:00etatik aurrera, dozenaka taldek jardungo dute, musika eta mugimenduaren arteko oreka eta harmoniaren bila. Besteak beste, eskualdeko klubuen ordezkari- tza osatuko dute Zipiriñek, Sopelak eta Getxok. Bertan, erritmoa adierazteko tresna gisa, sokak, uztaiak, pilotak, zintak eta mazoak erabiliko dituzte lehiakide gazteek. ◀

**Kantxa**  
kirol moda  
**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**



Torreña 4  
ALGORTAKO AZOKA

TF. 94 491 18 82  
info@kantxa.eu  
www.kantxa.eu



## Gure selekzioa vs Uruguai

**D**atorren irailaren 6an, lagunarteko partida jokatu du Euskal Herrian Uruguai-ko errugbi-selekzioak. Aurrean Euskal Selekzioa izango du. Ordua eta zelaia, baina, oraindino erabakitzeke daude, euskal selekzioak izango dituen jokalariek eta izena bera legez. Hego amerikarrak Munduko Txapelketarako trebatuko dira Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroan abuztuaren 31tik baina irailaren 1etik aurrera, Japoniatik bueltan. Nazioarteko lehiaketa nagusian, Ingalaterra, Gales, Australia eta Fiji uharteak izango dituzte arerio. ◀

© EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNA



Kirolaren bidez lagun berriak egin daitezke. © GETXO IGERIKETA WATERPOLO TALDEA

## Waterpolo Camp Surferako izen-ematea zabalik

**G**etxoko Igeriketa waterpolo-taldeak hirugarren Waterpolo Camp Surf-a egingo du, ekainaren 28tik uztailaren 10era, txanda bitan, Faduran. Halere, daborduko izena eman dezakete 1999 eta 2004 bitartean jaiotako neska-mutilek, lehenengo txandan, bigarrenean edo bietan. Tokiak mugatuta daude, eta, beraz, interesatuek ahalik eta lasterren inskribatu behar dira.

Sei egun eta bost gauetan, waterpoloan jokatu eta kirol anitzetan ondo pasatzeko hamaika aukera izango dute gazteek. Gainera, egun batean

Sopelako Arriatera-Atxabiribil hondartzan surf-eskola hartuko dute. Antolatzaileen arabera, saioak «dinamikoak eta berritzaileak» izango dira.

Kanpamenduko aste bakoitzaren prezioa 360 edo 520 euro izango dira, erabiltzaileak egingo dituen otorduen eta disfrutatuko duen ostatuaren arabera. Lehenengo kasuan, Faduran bazkaria eta askaria izango dira, eta bigarrenean, otordu guztiak eta lo egitea. Halere, deskontu txiki batzuk izango dira. Inskripzioagaz batera, 150 edo 250 euro ordaindu beharko dira. ◀

Info+: [Wp-camp.com/wp-camp-surf](http://Wp-camp.com/wp-camp-surf)

91 506 53 58 / [www.renault.es](http://www.renault.es)

## RENAULT SCÉNIC LIMITED



**13.900€-AN\***

MANTENIMENDUA DOAN 2 URTEZ\*

ARRISKU OROTAKO ASEGURUA URTE BATEZ\*

Irudiko modelo: Renault Scenic Limited Energy TCe 85kW (115ZP) pintura metalizatuarekin, PSP gomendatuen sartuta daude promozioak eta PIVE-7 Planaren deskontua: 15.800€.

**Scénic gama: kontsumo mistoa (l/100km) 4,1 eta 6,2 bitartean. CO<sub>2</sub>-aren isuria (g/km) 105 eta 140 bitartean.**

\*Eskaintza hau eta PSP gomendatua Penintsulako eta Balearretarako da. Renault Scenic Selection Energy-erentzat TCe 85kW (115ZP) modelokan, Barne daude BEZA, matxulazio-zerga, garraio-zerga, RECSA eskaintako promozioak eta PIVE-7 planaren deskontua. Partikularrentzat eta autonomozentzat da, betiere PIVE-7 Planaren baldintzak bete gero eta finantzazio multistren bidez eginez gero RCI Banque SA Sucursal en España-rekin, Finantzetaren gubierneko epea: 24 hilabete, Finantzu beharrek gubierneko kopurua: 6.000€. Opari diren alpatutako mantenimenduak 2 izango dira gehienez ere, 2 urtez edo 30.000 km egin arte (lehenengo gertatzen dena), 600€-ko frankiziadun arrisku orotako aseguruia doan lehen urtean. Mapfre-rekin, Aseguruia eta mantenimendua RECSAren opari dira. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Eskaintza hau balagarri izango da 2015/03/01etik 2015/03/31ra bitartean egindako eskaerentzat edo Plan PIVE-7 Planaren izakinak agortu arte. Irudiko modelo: Renault Scenic Limited Energy TCe 85kW (115ZP) modelo berria, pintura metalizatuarekin, PSP gomendatuen sartuta daude promozioak eta PIVE-7 Planaren deskontua: 15.800€.

Renault gomendatzen du



**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

**LEIOA BERRI AUTO** IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · [www.renault.es/concesion/leioaberri](http://www.renault.es/concesion/leioaberri)

**barcelona world race**







Tximiskeriak!!

AITOR  
GARAGARZA CAMBRA  
Langilea

#SOS\_Plentzia  
edo  
#SOS\_SDPlentzia

**P**lentziako udalerria iraganen pisu handiko herria izan zen, hiribilduaren izaera zeukan eta inguruko herriak elizateak ziren. Horrek plentziarron osaketa soziologikoa markatu izan du besteak beste. Gurea handikeriatan ibilitako herria dugu eta handikeriaz osatutako izaera kolektiboa.

Gaur egun ordea, «iragan lo-raitsuaz» soilik handikeria gorde nahian gaude. Hizkuntza eta ondarea desagertzeaz. Ekonomikoki kapitalaren eraketa geografikoaren lo-hiri huts bihurtu gara. Bi hilabeteko bizitza duen herri udatiarra.

Horrek guztiak zerikusia du S.D Plentziaren futbol zelaiagaz?

Eraikuntzak zein aizpiegiturak handikeriaz eta inongo arduraz eraikitzen direnean, gero ondorioak pairatzen ditugu. Plentziako futbol zelaia zoritzarrez ez da egoera tamalgarrin dagoen eraikuntza publiko bakarra; Jai alai frontoia, futbito-ko aparkalekua, Goñi Portal kultur aretoa edo hondartza ondoko eraikin megalomanoa. Ezin gara erori abstrakzioan, honen gaineko erantzuleak badaude eta jakin badakigu nortzuk diren.

Hurrengo urterako S. D Plentzia futbol zelairik gabe geldituko da egoera konpondu ezean. Slavoj Žižek-ek *Bienvenidos a tiempos interesantes* liburuan aipatzen du krisi garaia «poztasunez» hartu behar ditugula, momentu egokiak direlako egoerei buelta emateko.

Hargatik, apaltasunez eta arduraz jokatzeko hasteko garai heldu da. Udalak dituen gaitasun ekonomikoak eskasak direla kontuan hartu beharko genituen. Horregatik, aurrera begira errealitatea begiratzeko lupak aldatzeko ordua heldu da. Orain eta hemen sortzen duguna gure oinordekoentzako herentzia jasangaitza ezin da izan. Esparru guztietarako baliagarria... ◀



Manifestazioak 700 bat zale batu zituen.

## Konponbidea gura dute

**P**lentzia kirol-elkarteko bazkide, jokalaria eta zaleek argi eta garbi esan dute Errotabarrri futbol-zelaia konpon dadin Udalaren «konpromiso irmoa» nahi dutela. Horrela azaldu zuten pasaden barikuan Larritz Gonzalez eta Gorka Zabala jokalariek, udaletxearen parean, 700 lagun bildu zituen manifestazioaren aurrean. Plentziako Independenteen Udal Gobernuak 2013an agindutako lanak egin ezean, egia bihurtuko litzateke klubeko txikienek martxan zehar sostengatu zuten pankarta: «90 urte eta gero, agur». Izan ere, dimisioa aurkeztu duen Gorka Zuazo jarduneko presidentea gaur egun zelaia arriskutsua dela behin

baino gehiagotan salatu du eta atezainak pairatutako menisko-lesioak salaketa hori baieztatzen duela dirudi. Bost urteko umeengandik hasita eta erregionalean jokatzeko duten jokalariek barne, 300 neska-mutilen osotasun fisikoa bermatzeko baliteke zelaia itxi behar izatea.

### Federazioaren esku-hartzea

Iñaki Gomez Mardones Bizkaiko Federazioko presidentea Errotabarrin izan da, instalazioak ikusten eta nabarmendu du «gune bat erabat txarto» dagoela: «estalitako zulo bat dago. Zelaia irregularra da». Datozen asteotan Zelai Batzordea bertaratuko da, futbol-eremuak jokatzeko gutxienekoak

betetzen dituen ala ez erabakitzeko. Zuazoren ustez, zelaia hasieratik txarto egin zen, «hormigoizko geruza solido barik». Horrek eragin du «narradura azkarragoa» izatea, bere ustean. 2008az geroztik zelaiaren egoera salatu ostean, 2013an lortu zuten Isabel Zarauza alkateak konpontzeko hitza eta aurrekontua ematea; baina pasaden otsailean atzera bota zen, beste aukera batzuk daudela iritzita. Zuazok kontaktuak izan ditu alkateagaz eta lanak babestu dituzten beste alderdikaz, taldea politikarien esku dagoelakoan: «ezer ez badute egiten, kluba desagertuko da». EAJk ez ohiko Udaltzatzen bilera monografikoa eskatu du auzia aztertzeko. ◀



**Munduko txapela Getxora** ekarri du Marcos Cesar Morales Sarmiento Raspas arraun-elkarteko prestatzaile eta arraunlariak. Pasa den martxoaren 1ean irabazi zuen Bostonen (AEB), ergometro proban, 30 eta 39 urte arteko Master mailan, 05:59.3 markari esker.

© RASPAS ARRAUN TALDEA

## Kirol-taldeak sare sozialetan trebatuko dira

**G**etxoko Udalak bertoko kirol-elkartek sare sozialetan eta komunikazio digitalean trebatzeko #getxokirolak proiektua martxan jarri du. Egitasmo horren bidez, sareko lana indartu, kirol-jardueren zabalkundea hobetu, ezagutza partekatu eta sinergiak sortu nahi dituzte. Beste behin, Europako Kirol Hiri Onenaren izendapenak bultzatzeko ekimen bat dugu honako hau. Iaz, 50 kirol-modalitate-tako 300 jarduera baino gehiago komunikazioaren ikuspuntutik aztertu zituen Getxo Kirolak udal erakundeak. Ikerketaren emaitzek bultzatu dute programa abiatzen. ◀



## Sudokua

1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dute zutabe,ilara eta azpilauki bakoitzean.

				6			5	
				2	8	7	1	
	6	9						
1			4					
4					5	6		3
	3						8	
		7		4				
			2			3		1
	4			9				

### Soluzioa

7	9	5	1	6	8	3	4	2
1	4	3	7	5	2	8	6	9
8	2	6	9	3	4	7	1	5
4	8	1	2	7	6	5	3	9
3	6	9	5	8	1	2	7	4
1	8	6	4	3	9	2	7	5
2	3	8	7	1	5	6	9	4
9	1	1	7	8	2	6	9	3
6	5	9	3	7	9	4	2	8

## Lehiaketa: Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



**Karabtchevsky,**  
Bartóken orkestra-kontzertuaren aurrean entzunaldirako sarrera bikoitz bi

SARIA



Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Martxoaren 17a baino lehenago helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

## Horoskopoa



**Ura**  
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Bai. Laster da aitaren eguna, eta aurrekoetan bezala ez duzu inolako asmorik jai bihurtzeko. Ez gara gu izango kontrarik esango dizugunak.



**Otsoa**  
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zalantza existentziala sortu zaizu. Zabor-poltsa guztiak bete dituzu: orokorra, papera, beira eta plastikoa. Baina garbiketa-langileak greban daude.



**Adarra**  
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Hauteskunde kanpaina hasteko oraindino nahikotxo falta da, baina ez duzu nabaritzen. Aurkezpenak, programak, izen dapanak... bihar dirudite.



**Aitzurra**  
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Mesanotzeko tiraderan, orain dela hiru hilabetezozoketa baterako txartelak aurkitu dituzu. Jakin-minez, sarean begiratu duzu: tokatu zitzaizun.



**Hostoa**  
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Korrikarako entrenatzen hasi zara. Zorionak! Bazen garaia txandala eta zapatilak behingoz janzteko! Halere, ez duzu uste 50 metro egunean gutxi dela?



**Eguzkia**  
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Desesperatzeko modukoa egiten zaizu besteek arreta handiago jar dezaten berba egin beharrean garrasika egiten duen jen dea.



**Garia**  
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Etxean zulo beltzen bat daukazu. Ezin da bestela izan. Berriro ere garbigailuak galtzerdi bakoitia bueltatu dizu, umezurtz.



**Lastoa**  
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Denbora aurrera doa eta oraindino ez zara sagardotegira joan? Bada, egin plana azkar, bestela laster etorriko da Korrika eta ezin alde egin...



**Iratzea**  
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Auzokideak zarataka hasten direnean haserretzen zara? Agian bada garaia ohetik altxatu, albozoa jantzi eta igotzeko, goizeko 4:00ak direla esatera.



**Meta**  
(Irailak 17-Urriak 16)

Pasatu zen martxoaren 8a eta gauzak aurreko egoerara bueltatu dira: etxean emakumezkoak egiten ditu lan gehienak. Aldatzeko garaia da.



**Hazia**  
(Urriak 17-Azaroak 15)

Betaurrekoak ez dituzula behar esaten diozu lagun orori. Baina irakurtzeko jartzen dituzu eta urrunetik ikusteko ere bai. Nor engainatu nahi duzu?



**Negua**  
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Ondo egongo da? Zeozer gertatuko zitzaion? Daborduko pasatu dira hilabeteak postaria azken aldiz ikusi zenuenetik.

Torrene 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
irati@algorta@gmail.com

**irati**  
OPARIAK MODA GAZTEA

**PINTXOAK**  
**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:**  
**RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK**  
**AFARIAK ETA URTEBETETZEAK**  
**ENKARGUZ**  
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

txakoli  
**motaTx**  
ganeTx  
txakolina

leioa-Uribe errepidea 34 (Akatanda Polakal) Gohierri-Erandia  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

**saiazgetaria**  
HOTELA

Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
www.siazgetaria.com

**berezi**

Hamburguesas  
Sandwiches  
Sanwichak

Bocatas  
Ogitartekoak  
Platos combinados  
Plater konbinatuak

SABINO ARANA, 34 48640 - BERANGO  
PEDIDOS: 946 681 084 (PARA RECOGER EN LOCAL)





# Areeta, 1936

## Nazioarteko Eremuan sortu zen Ertzaintza



**Espioiak eta diplomatikoak** elkarregaz bizi izan ziren 1936ko udagoieneko Getxon. Alkatea izandako Jose Antonio Agirrek lehenengo Euzko Jaurlaritza martxan jartzen zuen bitartean, traizio eta odol istorioa idazten zen Areetan.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

**G**urean iraun zuen urte bietan, Gerra Zibilak hamaika istorio utzi zituen Uribe Kostan; gehienak, Burdin Hesiari lotutakoak. Halere, badira bestelakoak, Areetako Nazioarteko Eremuarenak berbarako. Garai hartan, jeltzaleek Ondarreta izenez ezagutzen zuten herri horretan, espioi nazien ehiza, hildako bi eragin zituen zibilen aurkako bonbardaketa, goi-mailako diplomazia eta Ertzaintzaren sorrera batu ziren giro belikoaren lainoan.

Euzko Jaurlaritzaren aldizkari ofizialean argitaratu ez bazen ere, hainbat lekukotasunen bidez badakigu Nazioarteko Eremua izendapena ezarri ziola Gobernuak edo garai hartako Bizkaiko Defentsa Batzordeak Areetako moilari, militar faxisten eta errekeeten altxamenduaren ostean. Horregaz batera, iziera militarreko Nazioarteko Polizia sortu zen ingurua zaintzeko. Luis de Ortuzar izan zen segurtasun-indar hori martxan jartzeko arduraduna. «Historia y Vida» aldizkarian 1971n azaldu zuenez, «Euzko Jaurlaritzak Euzko Alderdi Jeltzaleari gizon-talde bat eskatuko dio; Telesforo de Monzon Gobernazio ministroaren agindupean, aipatutako gunearen estatutuak bermatzeko». Alderdiak 1,80 metrotik gorako *morroskoak* aukeratu zituen, *Euzkadi* egunkariak erabilitako adjektiboa erabiltzearen. Faxistek akabatuko zuten Obieta doktorea arduratu zen haien sasoi fi-

sikoaz, eta Galartza kapitaina jarri zuten *E* arraro bat ikurtzat zeroan Nazioarteko Polizia horren kapitain, bere agintepean 800 gizon izan zituela. Egoitza Abrako Errege Itsas Klubean jarri zuten. Egun horietan hainbat jabetza bahitu zituzten, atzerritarrei ostatu emateko. Kasu batzuetan, familia dirudunek euren etxeak eskaini zizkioten Bilboko Kotsulatuari,

### **Nazioarteko Poliziarako Euzko Alderdi Jeltzalearen gizonak aukeratu zituzten, 1,80 metrotik gorako *morroskoak***

Bizkaian bizi ziren edo errefuxiatuta zebiltzan atzerritarrei uzteko. Konbentzimenduz ala errepresaliak ekiditeko egiten zuten, ez dago argi jakiterik. Ybarretarrek, adibidez, Cisco izeneko etxea eskaini zuten.

Izan ere, Espainiako Errepublikako Gobernuak zein Euzko Jaurlaritzak Frantzia eta Erresuma Batuen inplikazioa bilatu zuten Gerraren hasieran, batez ere armaz eta munizioz horni zituzten. Helburu horregaz, hainbat kotsul-etxe eta atzerri-jatorriko bizilagunak zaintzeak aliatuakaz harremanak estutzeko saiakera argia dirudi. Diplomazia arloan, behintzat,

emaitza xaloa izan zuen: Nazioarteko Gurutze Gorriko presidentek, Junnot doktoreak, eta hainbat kotsul-etxek bere laguntza eta babesa eskaini zioten Ortuzarri, Nazioarteko Eremua neutral gordetzeko. Frantzia, AEB, Erresuma Batua eta Austria agertu ziren gunearen alde, besteak beste. Era berean, Armada faxistak inguratutako poltsan egoteagatik, garrantzi handikoa zen gelditzen ziren komunikazio-bideak mantentzea. Hortaz, nazio guztien itsasontzi militarren zein merkantzia-ontzien trafikoa ahalbidetzea inportantea zen giza-laguntza zekarten misioak errazteko, armak ezkutuan inportatzeko zein informazio zerbitzuek bere lana egiteko.

Bestalde, hainbat sektorek *bosgarren zutabekotzat* edo traidoretzat jotzen zituzten Areetako familia monarkiko eta eskumako aberatsak babesteko ahalgina ere izan zitekeen gune neutrala sortzearena. Esaterako, eskuindarren aurka egin zuten 1937ko urtarrilaren 4an Bilboko Larrinagako kartzelan: bonbardaketa baten ostean ehunka herritar manifestazioan bilduta espetxean sartu, eta, zenbait bertsioen arabera, altxamenduaren zaleak ei ziren 55 preso hil zituzten. Egun berean, beste sarraski bat, handiagoa, jazo zen Bilboko Aingeru Zaindarien komentuan. Bertan 109 gatibu hil zituzten.

### **Ondarretako gatazka**

Era berean, 1937ko ekainaren 16an antzeko zerbait jazo zen, Areetan bertan. Aurreko egunean Burdin Hesia hautsi zuten *nazionalak*, eta Euzko Jaurlaritzak ebakuazioari ekin zion. Bitartean, Gezi Beltzak izeneko brigada faxista italiarrak Algorta hartu zuen, eta Areetan auzokide eskuindarrek kalera jo zuten, tiroka eta bandera faxistak eskuan, Euzko Gudaros-





Nazioarteko Poliziaren talde-erretratuak. Goian, Jesus Ortuzar eta Jose Luis Ibañezen hilotzak erroteko hileta-segizioa. Eskuman, Agirre.

tearen atzeraldia *arintzeko* eta indar *nazionalen* etorrera ospatzeko. Portugaleten zebilen CNTren Malatesta batailoia horretaz jabetuta, konpainia bi bidali zituen hara, txalupaz. Bi orduko enfrontamenduen ostean, anarkistek bederatzi hildako, edo 16, utzi zituzten, iturri ezberdinen arabera. Gainera, 24 eraikin guztiz erre eta beste 52 kaltetu zituzten, tartean elizari su eman eta apaiza bahitu zuten. Gerora, 500 pezetaren truke askatuko zuten.

#### Bonbardaketa eta sator-sarea

Karla Llanos blogari getxoztarrak *Memorias de Getxo*, *Getxosarri* bitakoran gogora ekarri duenez, Nazioarteko Eremuak ez zuen denbora luzez gozatu lau haizetara zabaldutako neutraltasuna. 1936ko urria-

### Besteak beste, bitxiak, Bilboko defentsen planoak eta euskal finantzen gaineko txostenak zeroatzen espioiak

ren 21ean, matxinatuen abioiek gunea bonbardatu zuten. Jesus Ortuzar eta Jose Luis Ibañez poliziak hiltzeaz gain, Erresuma Batuko kontsul-etxean eta Nazioarteko Poliziaren kuartelean, Abrako Errege Itsas Klubean, kalte larriak sortu zituzten. Polizia horien hilotzak elizkizunetara eramateko egin zuten hileta-segizioa Neguri osotik luzatu zen. Horretaz gainera, ordura arte babes berezia zuen guneko kontsul atzeritarrek protesta ekimen bat egitea erabaki zuten. Haien artean, adre gehien agertu zuena Guillermo Wakonigg izan zen, Austria-Hungaria inperioko oho-

rezko kontsula izandakoa eta I. Mundu Gerran alemani erregia eta laguntza banatu zizkiena. Txema Ramirez de La Piscina kazetariak eta EHUko irakasleak *Ertzantza, heroes o villanos? Pasado y presente de la Policia Autonoma Vasca* liburuan kontatu duenez, Wakonigg-ek beste delegatu atzeritarrak kontentzitu zituen protesta Donibane Lohitzunen egiteko, bertako enbaxaden aurrean. Proposamena onartu zen eta Stevenson Erresuma Batuko kontsulagaz, Argentina, Belgika eta Austriako delegatuak abiatuko ziren portura, Wakonigg lagun zutela. Exmouth destruktore britaniarra aukeratu zuten ordekaritza erroteko. Baina urriaren 28an, bidaia egin behar zuten egunean, Euzko Jaurlaritzaren Euskal Informazio Zerbitzuak Wakoniggez zituen zalantzak argitzea erabaki zuen. Kantauri itsasora atera aurretik, kontsul denei mailetak zabaltzeko eskatu zieten, ezetzik onartu barik. Denek onartu zuten, austriarrak izan ezik. Poliziek baliza diplomatikoa ireki zuten. Barruan, makina bat kontu interesgarri topatu zituzten. Esate baterako, bitxiak, agiri militarrek eta zibilak, Agirre lehendakariaren konfiantzazko pertsonen gaineko txostenak, Bilboko defentsen planoak, euskal finantzen gaineko azterketa, mugimendu abertzalearen gaineko oharrek eta arma mugimenduen erregistroak. Wakoniggegaz kolaboratzen zuen Pablo Murga kapitaina azaroaren 11n epaitu eta exekutatu zuten. Beste inplikatu denak Bilbon epaitu zituzten azaroaren 17an eta 18an. Besteak beste, Wakonigg, Jose Anglada komandantea eta Martinez Arias Paraguaiako kontsula fusilatu zituzten.

Azkenik, bonbardaketaren ostean, Nazioarteko Poliziak *Ertzantza* izena hartu zuen, baina hori beste historia bat da. ◀



## Kronologia

### 1936ko uztailaren 17a eta 18a

Altzamen du militarra Marokon, Espainian eta Euskal Herrian.

### 1936ko uztailaren 19a

Greba orokorra Bizkaian, UGTk eta CNTk deituta.

### 1936ko irailaren 25a

Euzko Gudarostea sortu zen.

### 1936ko urriaren 4a

Gipuzkoa ia osorik galdu ostean, euskal miliziek tropa frankistak gelditu zituzten Elgetan, Intxorta mendian.

### 1936ko urriaren 7a

Jose Antonio Agirre eta Lekubek Euzko Jaurlaritzako lehendakari ardura hartu eta Gernikako Arbolaren pean zina eman zuen. Batasun Gobernua eratu zuen.

### 1936ko urriaren 21a

Areetako Nazioarteko Eremua bonbardatu zuten.

### 1937ko apirila

Uribe Kostako herriak bonbardatu eta makina bat hildako eragin zituzten.

### 1937ko ekainaren 15a

Euzko Gudarostea erretiratu zen Uribe Kostatik.





## Flashback

# Lagunartea, Mairuaren dorrearen inguruan, 70. hamarkada

Algorta kanpoaldeko landetan zegoen Mairuaren dorrea zeritzona, hilerri ohiaren atzean (Hilaren Landa deiturikoa; gaur Lehendakari Agirre plaza), gitxi gorabehera gaurko Jaime Morera eta Telletxe kaleen bitartean. Gaurko algortar askok horren berri ez badute ere, Karla Llanosek bere *Memorias de Getxo* blogean jasotzen ditu hainbat kontu. Mairuaren dorrearen ingurumariak eta alboko etxolatxoak, sasoi hartako algortar neska-mutil askoren olgetaleku eta isil-mandatuen babesleku izan ziren...

Zilindro-formako dorre, zutabe edo monolitoaren gainean bola bat zeukan, horren azpian eguzki-erloju bat. 60. hamarkadan erdi-jausitako hiru horma bakarrik lotzen ziren, hurrengo hamarkadan etxez estaltzen hasi ziren landen erdian... Llanosen esanetan, Candido Arrietak eta Jose Luis Butron eskultoreak Getxoko elizara eroan zituzten dorrearen hondarrak; elizaren ezker hegalean, hantxe, daude denon begi-bistan. ◀

© Joserra Elorriagak egindako argazkia; Karla Llanos Etxabek helarazitakoa.



### Ezkerretik eskumara:

Tomas Lekan da (GB), Patxo Zarraga, Joseba Bueno, Jaime Ayo, Josetxu Lekan da, Angel Astorki eta Julio Jaen (behean).



## Uribitakora

### BERTSOAK

Iñigo Kortazar Elias

### DOINUA

*Dozena bat bertso berri*

### ARGAZKIA

Hodei Torres

**Uribitakoran parte hartu gura duzu?** Bidali egiguztu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

## Miopea naiz

Mundura jaio nintzela  
lau hamarkada badela.  
Denbora arin badoa eta  
ez dugu motela.  
Baina badator ospela,  
argazki honetan bezela:  
goizean bertan jakin izan dut  
miope naizela.

Hementxe nago buru zut,  
baditut galdera batzuk:  
«Arrigunaga, Plentzia edo  
non demontre diraut?»  
Ondo ikusi nahi zaitut,  
edozer eman horren truk.  
Paraje dauden ur tantak legez  
enfokatu nahi dut.

Begiak dira alpertu.  
Gorputzak ezin ulertu  
aurretik artez zebilena gaur  
nola den okertu.  
Paraje, hurbil ta gertu,  
soluzioa dut zertu:  
asau geratzen zaidan lekura  
behar parajetu.



### HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-buruak: Irantzu Sagaminaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez

Kudeaketa: Ziertza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

CC-BY-SA



### Erakunde laguntzaileak:



Helbide honek Eusko Foru Alderdiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso ditu.